

ADIK  
ZIO  
EN  
VII. Plana

Euskadi 2017-2021

2017-2018 TXOSTENA  
ADIKZIOEN VII. PLANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jurlaritzaren Bibliotekak  
sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**Argitalpena:**

1.a, 2019ko urria

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa  
Osasun Saila

**Autoría:**

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza  
Osasun Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua eta maketazioa:**

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza  
Osasun Saila

**Inprimaketa:**

Eusko Jurlaritzaren Erreprografia eta Inprenta Zerbitzua

**L.G.:**

VI 266-2019

# Aurkibidea


<b>Sarrera</b>	<b>4</b>
<b>Adierazleak</b>	<b>5</b>
<b>1. ARDATZA: Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena</b>	<b>27</b>
<b>2. ARDATZA: Eskaintzaren murrizketa</b>	<b>43</b>
<b>3. ARDATZA: Osasun-laguntza, laguntza soziosanitarioa eta gizarteratzea</b>	<b>47</b>
<b>4. ARDATZA: Ezagutzaren, prestakuntzaren eta ebaluazioaren kudeaketa</b>	<b>52</b>
<b>5. ARDATZA: Lidergoa eta koordinazioa</b>	<b>59</b>

## Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren 2017-2021eko aldian garatzen ari den VII. Adikzio Planaren bost ardatzei buruzko ikuspegi eta balorazio orokor bat ematea da ebaluazio-txosten honen asmoa. Betiere, euskal administrazio publikoek pertsonen osasuna babestera zuzenduriko estrategiak eta ekintzak planifikatu, antolatu eta koordinatze aldera. Planaren xedea, azken batean, adikzio-substantzien kontsumoa eta portaera-adikzioak sortzeko arriskua ahalik eta gehien murriztea da; eta beraz, baita pertsonen, familien, komunitatearen eta oro har biztanleriaren osasunarenganako eraginak ere. Osasun publikoa ekintza guztien ardatz nagusia duen ikuspegi hau guztiz bat dator 2013-2020rako Osasun Planaren baitan jasotakoekin.

Planak aurreikusitako ildoen mailakako ezarpena ebaluatzeko helburuarekin, urtez urteko jarraipena egiten da, hainbat adierazle oinarri hartuta. Adierazleen inguruko informazioa honako iturri nagusiotatik eskuratzen da: Euskadiko Adikzioei buruzko Inkesta, Drogak eta Eskola inkesta; eta EAeko Osasun Inkesta (EAEOI). Horrez gain, badira beste iturri batzuk, hala nola: Osasun Saila; adikzioen arloan esku hartzen duten beste eragile batzuk (tokiko prebentzio-taldeak, hirugarren sektorea, Drogei buruzko Plan Nazionala...); adikzioen prebentziorako, kalteen murrizketarako, tratamendurako eta gizarteratzerako urteroko laguntzen ebaluazioa; osasun mentaleko zentroyen eta eremu soziosanitarioaren jarduera; eta ezagutza hobetzeko eta kontsumoak prebenitzeko edo murrizteko egindako ikerketa-ekintzako azterketa zein esku-hartzeak.

Zehazki, txosten honek biltzen dituen ekintzak, 2017ko uztailaren 4ean Plana onartu zenetik 2018ko abenduaren 31ra arte garatutakoak dira.



[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accciones\\_plan/es\\_def/adjuntos/VII\\_plan\\_a\\_dicciones\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accciones_plan/es_def/adjuntos/VII_plan_a_dicciones_eu.pdf)

## Adierazleen laburpena

Plan honek, batetik, prozesuaren adierazleak dauzka, zeinen xedea baita planaren ildoen mailakako ezarpena ebaluatzea, eta, bestetik, emaitzen eta inpaktuen adierazleak, hots, planak osorik hartuta 2021. urterako dituen helburuak.

### 1 ARDATZA. ADIKZIOEN PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA

#### Prozesuaren adierazleak

#### 1. Parte-hartzaileen kopurua areagotzea eskola-, familia- eta komunitate-eremuetan egindako prebentzio unibertsaleko proiektuetan. Guztira eta sexuaren arabera bereizita. Abiapuntua: 2017.

2017. urteko datuak ez daude sexuaren arabera bereizita. 2018an, datuak ustiatzeko aplikazio bat diseinatu eta abian jarri da; horri esker, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez diru-laguntzak jasotzen dituzten programak eta proiektuak sakonago ebalua daitezke.

Taula honetan, jarduketa-eremu bakoitzean egindako prebentzio unibertsaleko proiektuen kopuruari eta proiektu horietan parte hartu duten pertsonen kopuruari buruzko informazioa jasotzen da. Toki-erakundeek eta hirugarren sektoreko proiektuak, laguntzen urteko deialdiaren bidez diru-laguntzak jaso dituztenak, barne hartzen dira, baita Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak kontratatutako zerbitzuak ere.

	2017		2018			
	Proiektu-kopurua	PARTE-HARTZAILEEN GUZTIZKO KOPURUA	Proiektu-kopurua	Gizonak	Emakumeak	PARTE-HARTZAILEEN GUZTIZKO KOPURUA
<b>ESKOLA</b>	100	<b>126.612</b>	63	75.085	83.002	<b>158.087</b>
<b>FAMILIA</b>	38	<b>11.607</b>	31	54.641	62.515	<b>117.156</b>
<b>KOMUNITATEA</b>	40	<b>46.749</b>	29	39.925	40.982	<b>80.907</b>

Oharra: parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik ateratzen da; beraz, baliteke parte-hartzaileak zenbatzean bikoiztasunen bat gertatzea.

#### 2. Parte-hartzaileen kopurua areagotzea substantzien kontsumoei eta adikzioa sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideei lotutako arriskuak arintzeko proiektuetan, eta arrisku-egoeran edo ahultasun-egoeran dauden kolektiboetan eta pertsonengan eskola-, familia-, komunitate-, aisia- eta jai-eremuetan. Guztira eta sexuaren arabera bereizita. Abiapuntua: 2017.

2017. urteko datuak ez daude sexuaren arabera bereizita. 2018an, datuak ustiatzeko aplikazio bat diseinatu eta abian jarri da; horri esker, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez diru-laguntzak jasotzen dituzten programak eta proiektuak sakonago ebalua daitezke.

Taula honetan, jarduketa-eremu bakoitzean egindako prebentzio selektiboko proiektuen kopuruari eta proiektu horietan parte hartu duten pertsonen kopuruari buruzko informazioa jasotzen da. Toki-erakundeek eta hirugarren sektoreko proiektuak, laguntzen urteko deialdiaren bidez diru-laguntzak jaso dituztenak, barne hartzen dira, baita Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak kontratatutako zerbitzuak ere.

	2017		2018			
	Proiektu-kopurua	PARTE-HARTZAILEEN GUZTIZKO KOPURUA	Proiektu-kopurua	Gizonak	Emakumeak	PARTE-HARTZAILEEN GUZTIZKO KOPURUA
<b>ESKOLA</b>	42	<b>43.321</b>	26	16.561	14.378	<b>30.939</b>
<b>FAMILIA</b>	18	<b>1.663</b>	12	545	899	<b>1.444</b>
<b>KOMUNITATEA</b>	32	<b>23.220</b>	31	16.468	8.737	<b>25.205</b>
<b>AISIA ETA JAIK</b>	47	<b>64.810</b>	26	47.143	45.256	<b>92.399</b>

Oharra: parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik ateratzen da; beraz, baliteke parte-hartzaileak zenbatzean bikoiztasunen bat gertatzea.

### 3. Parte-hartzaileen kopurua areagotzea alkohol, tabako eta kalamuaren kontsumoaren prebentziorako programa espezifikotuan. Guztira eta sexuaren arabera.

Informazio hori 2018. urtetik aurrera soilik dago eskuragarri; izan ere, urte horretan datuak ustiatzeko aplikazio bat diseinatu eta abian jarri da eta, horri esker, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez diru-laguntzak jasotzen dituzten programak eta proiektuak sakonago ebalua daitezke.

Taula honetan, alkohol, tabako eta kalamuaren kontsumoaren prebentziorako berriazko proiektuen kopurua eta hiru substantziei heltzen dieten proiektuen kopurua jasotzen dira, baita proiektu horietan parte hartu duten pertsonen kopurua ere. Toki-erakundeek eta hirugarren sektoreko proiektuak, laguntzen urteko deialdiaren bidez diru-laguntzak jaso dituztenak, barne hartzen dira, baita Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak kontratatutako zerbitzuak ere.

2018	Proiektu-kopurua	Gizonak	Emakumeak	PARTE-HARTZAILEEN GUZTIZKO KOPURUA
<b>BERARIAZKOAK: ALKOHOLA</b>	10	33.905	29.907	<b>63.812</b>
<b>BERARIAZKOAK: TABAKOA</b>	6	4.929	6.646	<b>11.575</b>
<b>BERARIAZKOAK: KALAMUA</b>	5	10.185	2.065	<b>12.250</b>
<b>ALKOHOLA/KALAMUA/TABAKOA/BESTELAKOAK</b>	16	12.149	15.530	<b>27.679</b>

Oharra: parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik ateratzen da; beraz, baliteke parte-hartzaileak zenbatzean bikoiztasunen bat gertatzea.

### 4. Esku hartzeko eredu bat garatzea drogen kontsumoa eta bestelako adikzioak murrizteko tokiko mailan. Eredu horrek komunitateari eta hiri-inguruneke determinatzaileei buruzko informazio fidagarria izango du.

Tokiko mailan garatzen den esku hartzeko eredu bi ardatz nagusitan egituratuta dago:

- Toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak egindako lana bultzatzea, laguntzei buruzko aginduaren bidez.
- Zenbait zerbitzu zuzenean ematea, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kontratazioaren bidez.

Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzen urteko deialdiak ildo hauek dauzka:

- Toki-erakundeek talde teknikoak sortzea eta mantentzea.

	2017		2018	
	Talde teknikoen kop.	Emandako munta	Talde teknikoen kop.	Emandako munta
<b>Araba</b>	4	198.280	4	191.322
<b>Bizkaia</b>	19	666.489	20	652.532
<b>Gipuzkoa</b>	11	309.366	12	330.281
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>1.174.135</b>	<b>36</b>	<b>1.174.135</b>

- Adikzioen komunitate-prebentziorako eta jokabide osasungarrien sustapenerako programak garatzea, toki-erakundeek zuzenean kudeatuak, edo, erakunde espezializatuekin elkarlanean.

**Eusko Jaurlaritzak komunitate-prebentziorako programak garatzeko ematen dituen laguntzak eskuratzeko lehiatzen diren toki-erakundeen kopurua.**

	2017		2018	
	Toki-erakundeen kop.	Emandako munta	Toki-erakundeen kop.	Emandako munta
<b>Araba</b>	3	53.413 €	3	52.327
<b>Bizkaia</b>	23	296.458 €	22	273.376
<b>Gipuzkoa</b>	18	211.895 €	20	236.062
<b>Guztira</b>	<b>44</b>	<b>561.765 €</b>	<b>45</b>	<b>561.765</b>

- Kontratuei dagokienez, azpimarra daiteke hezkuntza-, jai- eta aisia-eremuan esku hartzean jartzen dutela arreta nagusia, sentsibilizazio-kanpainen bitartez.

	Kontratuen kop.	Munta
<b>2017</b>	13	409.686
<b>2018</b>	13	437.681
<b>Guztira</b>	26	847.367

### Inpaktu-adierazleak

Adierazle hauei dagokienez, 2017ko Adikzioei buruzko Inkestan eskuratutako informazioa erabili da. Inkesta hori VII. Adikzio Plana onetsi ondoren egin zen. Nolanahi ere, inpaktu-adierazleetarako abiapuntua 2017. urtea da.

2017an Euskadin egin zen Adikzioei buruzko Inkestaren laginaren esparrua honako hauek osatzen dute: 15 eta 74 urte bitartean dituzten eta familia-etxebizitzetan bizi diren biztanleak. 2.013 pertsonako lagin bati egin zaio.



[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones\\_euskadi\\_drogas/eu\\_def/adjuntos/Encuesta-Adicciones-2017-Avance-Resultados\\_EUSK.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_euskadi_drogas/eu_def/adjuntos/Encuesta-Adicciones-2017-Avance-Resultados_EUSK.pdf)

5. 15 urtetik 24ra bitarteko biztanleak alkohola, kalamua eta tabakoa kontsumitzen hasteko adina (lehenengo aldiz probatzen den adina) atzeratzea, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua: 2017.

**Alkohol-kontsumoa:** edari alkoholdunak kontsumitzen hasteko batez besteko adina, 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen artean, 15 urte da gutxi gorabehera.

Edari alkoholdunak kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	15,3	15,3	15,3

**Kalamu-kontsumoa:** kalamua kontsumitzen hasteko batez besteko adina, 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen artean, 16 urtetik 17 urtera artekoa da.

Kalamua kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	16,6	16,7	16,5

**Tabako-kontsumoa:** tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen artean, 15 urtetik 16 urtera artekoa da.

Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	15,4	15,7	15,1

6. Tabako, alkohol, kalamu, bestelako droga ilegalen eta psikofarmakoen gaur egungo eta eguneroko kontsumo-tasak murriztea, 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua: 2017.

**Alkohol-kontsumoa:**

- Gaur egungo kontsumo-tasa: 2017. urtean, 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen % 70 inguruk kontsumitu ditu edari alkoholdunak azken 30 egunetan.

Edari alkoholdunen kontsumoa azken 30 egunetan, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	69,6	64,5	74,8



- Eguneroko kontsumo-tasa: 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen % 0,7k kontsumitu dute egunero alkohola azken hilabetean.

Eguneroko alkohol-kontsumoa, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	0,7	0,5	1

#### Kalamu-kontsumoa:

- Gaur egungo kontsumo-tasa: azken 30 egunetan izandako kontsumo-maiztasunari dagokionez, 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen % 13 inguruk kontsumitu dute kalamua, baina bakarrik % 3k egiten dute egunero.

Kalamu-kontsumoa azken 30 egunetan, 2017an (%)

	Ez du inoiz probatu	Ez du kontsumitu azken 12 hilabeteetan	Hilean 1-3 egun	Astean 1-3 egun	Astean 4-6 egun	Astean 7 egun
15-24 urte	52,7	34	5,9	3,5	0,8	3,1

Gaur egungo kalamu-kontsumoa, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	13,3	6,9	19,8

- Eguneroko kontsumo-tasa: 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen artean, azken 12 hilabeteetako kalamu-kontsumoaren prebalentzia % 25,4 da. Hala ere, adin-tarte beraren barruan, azken urtean kalamua gutxienez astean lau egunetan kontsumitu duten biztanleen portzentajea % 4,4ra jaitsi da.

Kalamuaren kontsumo-maiztasuna azken 12 hilabeteetan, 2017an (%)

	Ez du inoiz probatu	Ez du kontsumitu azken 12 hilabeteetan	Urtean 1-11 egun	Hilean 1-3 egun	Astean 1-3 egun	Astean 4-6 egun	Astean 7 egun
15-24 urte	52,7	21,8	15,2	3,1	2,7	1,1	3,3

Eguneroko kalamu-kontsumoa azken 30 egunetan, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	3,9	1,4	6,4

Oharrak: eguneroko kalamu-kontsumoa esaten zaio azken 30 egunetan astean gutxienez lau egunetan egindako kontsumoari.

#### Tabako-kontsumoa:

- Gaur egungo kontsumo-tasa: azken 30 egunetan, 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen % 18,7k erre dute tabakoa.

Gaur egungo tabako-kontsumoa, 2017an (%)

	Bizitzan noizbait	Azken 12 hilabeteetan	Azken 30 egunetan	Egunero
15-24 urte	25,5	20,1	18,7	14,3

Gaur egungo tabako-kontsumoa, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	18,7	17,9	19,5

- Eguneroko kontsumo-tasa: 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen % 14,3k kontsumitzen dute egunero tabakoa.

Eguneroko tabako-kontsumoa, sexuaren arabera, 2017an (%)

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
15-24 urte	14,3	13,9	14,6

#### Beste droga batzuen kontsumoa:

- Gaur egungo kontsumo-tasa: kokaina da gaur egun kontsumo altuena duen substantzia.

Beste substantzia batzuen gaur egungo kontsumoa, sexuaren arabera, 2017an (%)

15-24 urte	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Legez kanpoko beste droga batzuk (kalamua kanpo utzita)	1,62	0,0	3,29
+ Kokaina	1,28	0,0	2,60
+ Speeda, anfetaminak	0,96	0,0	1,95
+ MDMA, estasia	0,80	0,0	1,62
+ Azidoa, LSD	0,23	0,0	0,48
+ Perretxiko haluzinogenoak	0,41	0,0	0,83
Mediku-errezeta behar duten psikofarmakoak	1,9	2,7	1,0
Mediku-errezetarik behar ez duten psikofarmakoak	0,0	0,0	0,0
Errezeta behar duten zein errezetarik behar ez duten psikofarmakoak	1,9	2,7	1,0

Psikofarmakoak: lasaigarriak eta antidepresiboak barne hartzen dira. Ez da eguneroko kontsumoaz galdetu.

- Eguneroko kontsumo-tasa: 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen % 0,23k kontsumitzen dituzte egunero kalamuaz bestelako legez kanpoko drogak.

Beste substantzia batzuen eguneroko kontsumoa, sexuaren arabera, 2017an (%)


15-24 urte	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Legez kanpoko beste droga batzuk (kalamua kanpo utzita)	0,23	0,0	0,48

## 7. Alkoholaren kontsumo intentsiboaren prebalentzia murriztea 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua: 2017.

Baieztatzen da kontsumo intentsiboaren prebalentzia gizonengan dela handiagoa 15 urtetik 24 urtera arteko biztanlerian. Kontsumo hori biztanle gazteengan nagusitzen da eta adina handitu ahala murrizten da.

15-24 urte	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Azken 30 egunetako alkoholaren kontsumo intentsiboaren prebalentzia, guztira	22,9	20,5	25,4
+Hilean 1-2 egun	18,1	16,4	20,0
+Hilean 3-4 egun	3,8	3,6	3,9
+Hilean 5 egun edo gehiago	1,0	0,5	1,5

Oharra: kontsumo intentsiboko gertakari esaten zaie, gizonen kasuan, abagune berean 5 edari alkoholduen edo gehiago kontsumitu dituzten egunen kopuruari eta, emakumeen kasuan, abagune berean 4 edari alkoholduen edo gehiago kontsumitu dituzten egunen kopuruari.



**8. Gehiegizko jokoaren edo joko arriskutsuaren prebalentzia murriztea Gehiegizko Jokoaren Indize Kanadarraren (ICJE) arabera, 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua: 2017.**


Gehiegizko Jokoaren Indize Kanadarrak (ICJE) bi arrisku-kategoria (baxua eta moderatua) eta gehiegizko jokalariairen kategoria taldekatzen ditu. Tresna 9 itenez osatuta dago eta, horren bitartez, jokalaria aktiboaren kategoria orokorraren barruan, lau mota bereiz daitezke, ausazko jokoei edo apustu-jokoei dagokienez.

2017an, joko-adikzioaren prebalentzia gizonengan da handiagoa, emakumeen prebalentziaren hirukoitza baita. Adinari dagokionez, berriz, gazteen artean eta tarteko adineko pertsonen artean da nagusi.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>15-24 urteko gazteak</b>			
Joko aktiborik ez	92,1	97,5	86,6
Arriskurik ez	4,5	2,0	7,0
Nolabaiteko arriskua:	3,4	0,5	6,4
+Arrisku txikia	2,5	0,5	4,6
+Arrisku moderatua	0,6	0,0	1,3
+Gehiegizko jokoa	0,3	0,0	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0
<b>Biztanleria osoa</b>			
Joko aktiborik ez	73,7	79,9	67,5
Arriskurik ez	23,7	18,9	28,6
Nolabaiteko arriskua:	2,5	1,2	3,9
+Arrisku txikia	1,9	1,1	2,7
+Arrisku moderatua	0,4	0,0	0,9
+Gehiegizko jokoa	0,2	0,1	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0

2017an, biztanleria osoaren % 26,3 aritzen dira joko aktiboan. Pertsonen % 23,7k ez daukate adikzio-arriskurik.

**Gehiegizko jokoaren edo joko arriskutsuaren prebalentzia, sexuaren arabera (%). Euskadi, 2017**




**9. Internet era arriskutsuan edo problematikoan erabiltzeko prebalentzia murriztea, Ormanen Internetekiko adikzioari buruzko testean oinarrituta, 15 urtetik 24ra bitarteko gazteengan eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua: 2017.**


Ormanen testa 9 itemez osatutako tresna da, zeinaren bidez Interneten erabilera arriskutsua eta problematikoak identifika baitaiteke.

15 urtetik 74 urtera arteko biztanleen % 14,9k ez dute Internet erabiltzen. % 80,1ek arazorik gabe erabiltzen dute, eta % 5ek erabilera arriskutsua edo problematikoak dute.

**Interneten erabilera arriskutsuaren eta problematikoaren prebalentziaren eboluzioa, Ormanen testaren arabera (%). Euskadi, 2017**



Interneten erabilera arriskutsuaren eta problematikoaren prebalentzia pixka bat altuagoa da emakumeen artean. Horretan aritzen diren biztanleen ia hiru laurden 15 urtetik 34 urtera artekoak dira. Interneten erabilera arriskutsuaren eta problematikoaren prebalentzia, 15 urtetik 24 urtera arteko biztanleen artean, emakumeengan % 23,7 da eta gizonengan, aldiz, ia % 20.



**10. Droga normalizatuen arriskuari buruzko pertzepzioa areagotzea: alkohola, tabakoa eta kalamua 15 urtetik 24ra bitarteko gazteengan eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta. Abiapuntua: 2017.**

**Alkohol-kontsumoa:** 2017an, arriskuari buruzko pertzepzioa handiagoa da egunero 5-6 kaña edo kopa kontsumitzeari dagokionez, asteburuetakoko kontsumoaren kasuan baino.

**Alkohol-kontsumoari buruzko pertzepzioak 2017an (%).**

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>15-24 urteko gazteak</b>			
Asteburuan 5 edo 6 kaña edo kopa hartzea	34,5	40,9	27,9
Egunero 5 edo 6 kaña edo kopa hartzea	94,9	96,7	93,1
Egunero 1 edo 2 kaña edo kopa hartzea	46,4	49,7	42,9
<b>Biztanleria osoa</b>			
Asteburuan 5 edo 6 kaña edo kopa hartzea	34,6	40,3	28,7
Egunero 5 edo 6 kaña edo kopa hartzea	94,1	96,3	91,9
Egunero 1 edo 2 kaña edo kopa hartzea	42,4	51,4	33,3

Oharra: datuek honako honen berri ematen dute: aipatutako erabilera-eredu bakoitzerako pertsonen zein ehunekok erantzuten duen kontsumo horrek zenbait arazo edo arazo asko dakartzala.

**Tabako-kontsumoa:** azken hamarkadan, tabakoari buruzko pertzepzioan aldaketa garrantzitsu bat gertatu da. 2017an, argi eta garbi handitu da eguneko pakete bat erretzea zenbait arazo edo arazo asko dakartzala pentsatzen duten biztanleen proportzioa (% 97,8). Portzentajea oso antzekoa da 15 urtetik 24 urtera arteko gazteen artean (% 97,1).

**Tabako-kontsumoari buruzko pertzepzioak 2017an (%).**

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>15-24 urteko gazteak</b>			
Egunean 5 zigarreta erretzea	67,2	72,7	61,5
Egunero tabako-pakete bat erretzea	97,1	96,6	97,5
<b>Biztanleria osoa</b>			
Egunean 5 zigarreta erretzea	50,3	55,4	45,1
Egunero tabako-pakete bat erretzea	97,8	98,2	97,3

Oharra: datuek honako honen berri ematen dute: aipatutako erabilera-eredu bakoitzerako pertsonen zein ehunekok erantzuten duen kontsumo horrek zenbait arazo edo arazo asko dakartzala.

**Kalamu-kontsumoa:** haren arriskuei buruzko pertzepzioa handiagoa da, batez ere asteroko edo eguneroko kontsumoari dagokionez, noizbehinkakoa baino.

**Kalamuaren kontsumoari eta irisgarritasunari buruzko pertzepzioak 2017an (%).**

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>15-24 urteko gazteak</b>			
Kalamua hilean behin edo gutxiagotan erretzea	25,6	29,8	21,3
Kalamua astean behin edo gehiagotan erretzea	63,8	70,3	57,1
<b>Biztanleria osoa</b>			
Kalamua hilean behin edo gutxiagotan erretzea	35,8	41,7	29,7
Kalamua astean behin edo gehiagotan erretzea	64,8	70,3	59,2

Oharra: datuek honako honen berri ematen dute: aipatutako erabilera-eredu bakoitzerako pertsonen zein ehunekok erantzuten duen kontsumo horrek zenbait arazo edo arazo asko dakartzala.

## 2. ARDATZA: ESKAINTZAREN MURRIZKETA


### 11. Salaketa-kopurua lurraldeen arabera, sektoreen arabera, salatzaileen arabera eta arau-hauste motaren arabera.

Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, honako erakunde hauen artean banatzen ditu ikuskaritza- eta zehapen-eskumenak, zehapen-motaren eta bakoitzaren graduazioaren arabera: alkatetzak, Eusko Jaurlaritzan adikzioen arloan eskuduna den saila, Gobernu Kontseilua eta Eusko Jaurlaritzan gizarte-arloan eta osasun-arloan eskudunak diren sailak. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritza tabakoaren arloko arau-hauste astunetan eta edari alkoholdunen arloko arau-hauste oso astunetan soilik da eskuduna eta prozedura horiei buruzko informazioa dauka. Datu horiek oinarri hartuta, tabakoari buruzko ondorio hauek atera dira:

**Salaketak lurraldeen arabera:** 2016. urtean, orduan sartu baitzen indarrean apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, salaketa-kopuru handiagoa erregistratu zen.

**Salaketak lurraldeen arabera**

	2016	2017	2018
ARABA	56	31	42
BIZKAIA	153	124	104
GIPUZKOA	59	28	46
<b>GUZTIRA</b>	<b>268</b>	<b>183</b>	<b>192</b>



**Salaketak sektoreen arabera:** ostalaritza da 2016tik 2018ra arteko aldian salaketa-kopuru handiena izan duen sektorea, eta, horren ostean, joko-establezimenduak.

**Salaketak sektoreen arabera**

	2016	2017	2018	Guztira
OSTALARITZA	176	125	129	430
KULTURA-/GIZARTE-/JOLAS-ZENTROA	5	1	4	10
LANTOKIA	6	2		8
GARRAIOBIDEA/GARRAIO PUBLIKOA			2	2
KIROL-ZENTROA	11	6	20	37
MERKATARITZA-GUNEA/SALTOKI-GUNEA/SALTOKIA	6	7	12	25
OSASUN-ZENTROA			1	1
ZERBITZUGUNEA		1		1
HAURRENTZAKO PARKEA	1	1		2
JOKO-ESTABLEZIMENDUAK	61	38	24	123
JABEKIDEEN ERKIDEGOAK	2	2		4

**Salaketak salatzailen arabera:** salaketa gehienak udaltzaingoetatik datoz eta, gero, Ertzaintzak jarritakoak daude. Partikularrei dagozkienak pixkanaka murriztuz joan dira urtez urte.


**Salaketak salatzailen arabera**

	2016	2017	2018	Guztira
ERTZAINITZA	106	49	87	242
UDALITZAINGOA	114	96	74	284
PARTIKULARRA	31	27	22	80
GUARDIA ZIBILA	16		9	25
OSASUN PUBLIKOKO IKUSKARIA ETA OFIZIOZ		11		11
JABEKIDEEN ERKIDEGOAK	1			1

**Salaketak arau-hauste motaren arabera:** emandako datuak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzan erregistratu diren salaketei buruzkoak dira. Erregistratutako salaketetatik, gehienak erretzea baimenduta ez dagoen establezimendu eta tokietan erretzen uztearen ondorioz jarri dira, eta beherakada txiki bat egon da 2016. urtetik 2018ra arte.

Salaketak arau-hauste motaren arabera

	2016	2017	2018	Guztira
TABAKOAREN/NADG-EN SALMENTA	15	11	13	39
ERRETZEN UZTEA	142	127	112	381
ERRETZEA	106	44	67	217
SEINALEAK FALTA DIRA	5	1	0	6



**Beste esku-hartze batzuk:**

– Tabakoari dagokionez:

- Erretzearen ondoriozko arau-hausteengatiko salaketei dagozkien udalerrietako alkateei egindako komunikazioak, organo horiei dagokielako tabakoaren arloko arau-hauste arinengatiko zehapenak jartzea.

2016	2017	2018
45	44	67

- Salatutako erakundeei edo pertsoneri zuzendutako informazio-jarduketak, tabakoaren arloko kasu zehatzari aplikatu beharreko arauari buruzkoak.

2016	2017	2018
25	19	10

– Edari alkoholdunei dagokienez:

- Edari alkoholdunen arloko arau-hauste arinengatiko eta astunengatiko (edari alkoholdunak kontsumitu eta saltzeagatiko) salaketei dagozkien udalerrietako alkateei egindako komunikazioak, organo horiei dagokielako zehatzeko eskumena. 2016. urtean ez zen informazio hori biltzen.

2017	2018
26	6



- Edari alkoholdunen publizitate ez-zilegiari buruzko ofiziozko jarduketak, Eusko Jaurlaritzan adikzioen arloan eskuduna den organoari dagokiolako edari alkoholdunei buruzko sustapenarekin eta publizitatearekin zerikusia duten arau-hausteengatiko zehapenak jartzea. 2016. urtean ez zen informazio hori biltzen.


2017	2018
1	1

## 12. Zehapen-kopurua salaketa-kopuruari dagokionez.

Apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, 2016ko apirilaren 14an sartu zen indarrean. 95. artikuluan zehatzeko eskumena ezartzen da. Tabakoaren arloko arau-hauste astunei (erretzen uzteari eta tabakoa saltzeari) dagozkien zehapenak direla-eta, haien gaineko eskumena Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari baitagokio, 229 zehapen-espeditente amaitu dira jasotako 419 salaketetatik.

Erretzen uzteagatik edo tabakoa saltzeagatik ezarritako zehapenak

	2016	2017	2018	Guztira
ARABA	20	7	11	38
BIZKAIA	65	47	41	153
GIPUZKOA	17	11	10	38



## 13. Zehapenen ordezeko neurrien kopurua.

Zehapenen ordezeko neurriak.

	Ordezko neurrien kopurua
2017	25
2018	62

2018an, apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, garatzeko dekretua idazteko aurretiko azterketa- eta analisi-fasea egin da; dekretu horren xedea da apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 93. artikuluan xedatutako ordezeko neurriak arautzea.

#### 14. Akordioak edo kanpainak aisialdi, merkataritza eta ostalaritzako enpresa-erakundeekin.

- Alkohol-kontsumoaz sentsibilizatzeko kanpaina, “Zaindu”, adikzioei buruzko tokiko plana duten toki-erakundeekin koordinatuta.

“Zaindu” kanpainan parte hartu duten toki-erakundeak

	2017	2018	Lurralde historikoko guztizkoa
ARABA	3	3	6
BIZKAIA	14	10	24
GIPUZKOA	5	8	13
GUZTIRA	22	21	43

Oharra: Arabako 3 erakundeetatik bat adikzio-plan erkide bat daukaten eta Arabako Foru Aldundiaren zerbitzuak jasotzen dituzten Arabako 3 kuadrillei dagokie.

- Ostalaritzako banaketa arduratsuari buruzko programa eta alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteari buruzko prestakuntza, gazteekin eta adingabeekin harremanetan lan egiten duten pertsonentzat.

Tailerren kopurua lurralde historikoen arabera

	2017	2018	Guztira
ARABA	2	3	8
BIZKAIA	13	18	31
GIPUZKOA	7	7	14
GUZTIRA	22	28	53

### 3. ARDATZA: OSASUN-LAGUNTZA, LAGUNTZA SOZIOSANITARIOA ETA GIZARTERATZEA

#### Prozesuaren adierazleak

#### 15. Adikzio-arazoak dituen eta bazterketa-egoeran dagoen pertsona-kopurua, arreta integrala sustatzen duten baliabideetan arreta jasotzen duena.

Adikzio-arazoak dituen eta bazterketa-egoeran dagoen pertsona-kopurua, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin adostutako baliabideetan arreta jasotzen duena

	2017		2018		Guztira	
	G	E	G	E	G	E
Eskakizun txikiko eta arreta eta larrialdi soziosanitarioko eguneko baliabidea gizarte-bazterketako egoeran dauden droga-mendekoentzat	396	88	347	80	743	168
Bilbon adikzioei arreta emateko zentro soziosanitarioa. “Andén 1”	358	74	344	68	702	142
“HONTZA” gaueko larrialdi- eta harrera-zentroa	464	163	575	155	1039	318
GUZTIRA	1.208	325	1.266	303	2.484	628


Toxikomaniei buruzko informazio-sistemak (TIS), Eusko Jaurlaritzako Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak eginak, hiru adierazle hauetan oinarrituta jasotzen ditu datuak: tratamenduaren adierazlea, larrialdien adierazlea eta hilkortasunaren adierazlea. Tratamenduaren adierazleak honako hauei buruzko informazioa biltzen du: toxikomaniak tratatzeko zentroetan, Osakidetzako zentroetan edo Euskadiko zentro itundu edo pribatuetan substantzia psikoaktiboekiko mendekotasun edo abusuagatik tratamendua hasi duten pertsonak.

2017. urteari, hots, TISen azken edizioari (2019ko otsailean argitaratu zen), dagozkion datuak aurkezten dira.



[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/registros\\_toxicomanias/es\\_def/adjuntos/Informe-SEIT-2017.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/registros_toxicomanias/es_def/adjuntos/Informe-SEIT-2017.pdf)

2017an tratamendua hasi duten biztanleen erregistroko datuen arabera, hauek dira **tratamendurako onartutako kopuruak**, eragin duen drogaren arabera:



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazioaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Beraz, 2017an tratamendurako onartutako guztizko kopurua 1.449 da. Ikusten da kopuruak gora egin duela 2016ko datuekin erkatuta, urte horretan 1.392 erregistratu ziren eta.

Taula honetan tratamendua hasi duen pertsona-kopurua jasotzen da ikasketa eta lan-egoera aintzan hartuta:

	Heroina	Anfetaminak	Kokaina	Cannabisa	Alkohola	Beste batzuk	Guztira	%
	Heroína	Anfetaminas	Cocaína	Cannabis	Alcohol	Otras	Todo	%
<b>Ikasketak</b>								
<b>Estudios</b>								
<i>Ez daki ez irakurtzen ez idazten</i> No sabe ni leer ni escribir	0	0	0,7	0,9	0,6	0,7	16	0,6
<i>Ez du derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitu</i> No ha finalizado la Educación Primaria obligatoria	12,6	14,6	17	12,8	11,6	12,9	340	13,3
<i>Derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitu du</i> Ha finalizado la Educación Primaria obligatoria	31,6	36,1	28,5	36,5	30,5	34,7	813	31,8
<i>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu du</i> Ha finalizado la Enseñanza Secundaria obligatoria	14,4	19,6	20,4	23	13,2	16,3	436	17
<i>Batxilergoa edo erdi-mailako heziketa ziklo bat amaitu du</i> Ha finalizado Bachillerato o ciclo formativo de grado medio	30,5	16,5	21,9	16,5	21	19	529	20,7
<i>Goi-mailako ikasketak amaitu ditu</i> Ha finalizado estudios superiores	2,9	5,1	8,1	5,1	9,6	5,4	194	7,6
<i>Ezezaguna</i> Desconocido	8	8,2	3,3	5,1	13,4	10,9	232	9,1
<b>Lan egoera</b>								
<b>Situación laboral</b>								
<i>Lan-harremán mugagabea edo autonomoa</i> Relación laboral indefinida o autónomo	21,3	22,8	33	14,2	29,6	21,8	673	26,3
<i>Aldi baterako lan-harremana</i> Relación laboral temporal	6,3	9,5	14,4	10,7	8,8	10,9	264	10,3
<i>Soldatarik gabe, familiarentzako lanean</i> Trabajando sin sueldo para la familia	0	0	0,6	0	0,4	0	7	0,3
<i>Langabea, aurretik lanik egin gabea</i> Parado no habiendo trabajado antes	4,6	3,8	6,5	13,5	3,3	7,5	155	6,1
<i>Langabea, aurretik lana eginda</i> Parado, habiendo trabajado antes	51,1	45,6	35,9	27,9	31,2	32	869	33,9
<i>Ezintasun iraunkorra duena, pentsioduna</i> Incapacitado permanente, pensionista	12,6	7,6	3,5	3	18	13,6	286	11,2
<i>Ikasten edo oposizioak egiten</i> Estudiando u opositando	0,6	3,8	1,9	24	1,4	7,5	147	5,7
<i>Sollik etxeko lanak egiten</i> Realizando exclusivamente labores del hogar	1,1	1,3	0,2	0,2	1,7	0,7	26	1
<i>Beste egoera batean</i> En otra situación	0,6	4,4	2,4	5,6	2,4	1,4	74	2,9
<i>Ezezaguna</i> Desconocida	1,7	1,3	1,7	0,9	3,1	4,8	59	2,3

Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazioaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

## 16. Adikzio-arazoak dituzten emakumei zuzendutako esku-hartze espezifikoaren kopurua.

	2017	2018
Adikzio-arazoak dituzten emakumei zuzendutako hirugarren sektoreko erakundearen proiektuen kopurua	2	4
Adikzio-arazoak dituzten emakumei zuzendutako toki-erakundearen proiektuen kopurua.	1	0

Toxikomaniei buruzko Informazio Sisteman bildutako datuen arabera, 2017an 491 emakume onartu dira, hau da, 2016an baino 8 gehiago.

	Heroina	Anfetaminak	Kokaina	Cannabisa	Alkohola	Beste batzuk	Guztira	
	Heroina	Anfetaminas	Cocaína	Cannabis	Alcohol	Otras	Todo	%
<b>Sexua</b> Sexo								
Gizonak Hombres	79,3	73,4	91,1	86,5	74,3	85,7	2.069	80,8
Emakumeak Mujeres	20,7	26,6	8,9	13,5	25,7	14,3	491	19,2

Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazioaren Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

### 17. Osakidetzak egindako esku-hartzeen kopurua tabakoa erretzeko ohitura uzteari dagokionez (esku-hartze laburra, intentsiboa, motibaziozko laguntza, tratamendu farmakologikoa).

Tabakoa erretzeko ohitura uzteko eskaintza Osakidetzako lehen mailako arretako kontsultetan ematen da. Zerbitzua erabiltzen duten gehienak emakumeak dira, nahiz eta tabakismoaren prebalentzia emakumeengan gizonengan baino baxuagoa izan. Programa 2011n abian jarri zenetik, 22.498 pertsonak jaso dute tratamendua.

	Taldekoa Guztira			Banakakoa Guztira		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<b>2017</b>	543	372	915	1.076	989	2.065
<b>2018</b>	306	218	524	944	915	1.859

Iturria: Osakidetzak

### 18. Substantziarik gabeko adikzioen inguruko programa espezifikoaren kopurua.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko eta jokabide osasungarriak bultzatzeko emandako laguntzei buruzko aginduaren bidez, jarduketak hauek finantzatu dira:

	Toki-erakundearen prebentzio komunitarioko programak			Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundearen proiektuak		
	Erakunde-kopurua	Proiektu-/programa-kopurua	Hartzaile-kopurua	Erakunde-kopurua	Proiektu-/programa-kopurua	Hartzaile-kopurua
<b>2017</b>	0	0	0	6	8	3.794
<b>2018</b>	0	0	0	8	11	6.230
<b>GUZTIRA</b>	0	0	0	14	19	10.024

Aurreko tauletan ikus daitekeenez, toki-erakundearen prebentzio komunitarioko programetan ez zaio berariaz heltzen substantziarik gabeko adikzioen prebentzioari. Hala ere, alderdi hori bete egiten da, gai horri substantziarik gabeko adikzioen prebentzioarekin batera aurre egiten zaiolako. Horrela, 2018an, 19 udalek aurkeztu dituzte programak. Horietan, prebentzio unibertsal eta selektiboko 45 proiektu barne hartu dituzte, portaera-adikzioei heltzen dietenak, substantziarik gabeko adikzioen prebentzioarekin batera.

## Inpaktu-adierazleak

### 19. Bazterketa-egoeran dauden droga-mendekoentzako baliabideetan arreta jaso duten pertsonen proportzioa areagotzea (egoera horretan dagoen biztanleria guztiarekiko).

Adikzio-arazoak dituen eta bazterketa-egoeran dagoen pertsona-kopurua, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin adostutako baliabideetan arreta jasotzen duena

	2017		2018		Guztira	
	G	E	G	E	G	E
Eskakizun txikiko eta arreta eta larrialdi soziosanitarioko eguneko baliabidea gizarte-bazterketako egoeran dauden droga-mendekoentzat	396	88	347	80	743	168
Bilbon adikzioei arreta emateko zentro soziosanitarioa. "Andén 1"	358	74	344	68	702	142
"HONTZA" gaueko larrialdi- eta harrera-zentroa	464	163	575	155	1039	318
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.208</b>	<b>325</b>	<b>1.266</b>	<b>303</b>	<b>2.484</b>	<b>628</b>

### 20. Tabakoa erretzeko ohitura uzteko tratamendua amaitzen duten eta erretzeari uzten dioten pertsonen ehunekoaren igoera.

Ohitura uzteko tratamendua amaitu duten pazienteak

	Taldekoa Guztira			Banakakoa Guztira		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<b>2017</b>	% 15	% 16	% 15,5	% 6	% 7	% 6,5
<b>2018</b>	% 22	% 20	% 21	% 5	% 5	% 5

Iturria: Osakidetza

### 21. Balorazioa egin ondoren, tratamendua hasten duten eta adikzio-arazoak dituzten 18 urtetik beherako pertsonen ehunekoa.

Datu horiek (tratamenduari buruzkoak, ez tratamenduaren hasierari buruzkoak, horrelakorik ez daukagu eta) bai sare publikotik bai hirugarren sektoreko erakundeetatik jaso dira. Adingabeentzako arreta-programak dira, zeinetan horietatik askok drogak kontsumitzen dituzten, baina ez dute zertan adikzio-diagnostikorik eduki.

	Gizonak	Emakumeak
<b>2017</b>	772	194

Iturria: adingabeekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeetatik jasotako datuak.

## 4 ARDATZA. EZAGUTZAREN, PRESTAKUNTZAREN ETA EBALUAZIOAREN KUDEAKETA

### Prozesuaren adierazleak

### 22. Adikzioen gaian Osasun Sailak emandako laguntzen ebaluazioa sendotzea, genero- eta geografia-ekitatearen ikuspuntutik, baita hezkuntzaren arlokoetan ere hornidura-motaren arabera (publikoa, itundua edo pribatua).

2018. urtean, datuak ustiatzeko aplikazio bat abian jarri da. Horri esker, laguntzei buruzko aginduaren bidez diru-laguntzak jasotzen dituzten programak eta proiektuak sakonago ebaluatu ahalko dira.

**23. Substantziek eragindako eta substantziarik gabeko adikzioen eremuko ezagutza hobetzeko gauzatutako ikerketa-kopurua areagotzea (kuantitatiboak, kualitatiboak edo ikerketa-ekintza), ekitatearen ikuspuntutik. Abiapuntua: 2017.**

Ikerketa horiek SIISek (Euskal Autonomia Erkidegoko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroak), Droga-menpekotasunen Deusto Institutuak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak egin dituzte, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenen eta kontratuaren esparruan.

	Ikerketa-kopurua
2017	6
2018	7

**24. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari lotutako erakundeen prestakuntza-ekintzen kopuruaren egonkortasuna. Abiapuntua: 2017.**

Prestakuntza-ekintzak SIISek (Euskal Autonomia Erkidegoko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroak) eta Droga-menpekotasunen Deusto Institutuak egiten dituzte, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenen esparruan.

	Prestakuntza-jarduera	Ikasle-kopurua	Jardueraren orduak
2017	7	342	71
2018	6	157	56

**25. Droga-mendekotasunen Euskal Behatokia berriz diseinatzea eta eguneratzea, baita Adikzioen Zerbitzuaren webguneko gainerako atalak ere.**

2018an indarrean sartu zen otsailaren 20ko 25/2018 Dekretua (45. EHAA, 2018ko martxoaren 5koa), Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Legean bildutako erakunde-egitura garatzen duena. Dekretuak **Adikzioen Euskal Behatokia** arautzen du eta informazio-zerbitzu horren izaera juridikoa, eremu materiala, helburua eta eginkizunak ezartzen ditu, baita gutxienez garatu beharko dituen txosten, produktu eta zerbitzuak ere.

Osasun Sailaren Adikzioen webgune berria (<http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/adicciones/inicio/>) berriazko 5 ataletan antolatu da, beste eremuekin erkideak direnez gain. Hona hemen atalok: Droga eta adikzioei buruz; GABIA - Adikzioen Behatokia; Programak, planak eta bestelako ekimenak; Laguntza bilatzen ari zara?; eta Sentsibilizazio gunea.

Webgune berriaren alderdi berritzaileen artean, prebentzioari, laguntzari eta osasun mentalari lotutako baliabideei buruzko funtsezko datuen kokapen geografikoa ematen duen mapa nabarmentzen da. 24 orduko telefono bat gehitu da, adikzioetarako berriazko laguntzen bidez finantzatutako programa eta esku-hartzei buruzko informazioa eta laguntza eskatzeko. Gainera, ZAINDU kanpaina berria aurkeztu da; haren xedea alkoholaren eta beste adikzio-substantzien kontsumoari aurrea hartzea da, eta batez ere gazteei zuzentzen zaie.

## Inpaktu-adierazleak

### 26. Urteko bisita-kopuruaren areagotze progresiboa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren webgunearen Adikzioen ataleko ezagutzaren kudeaketarekin erlazionatutako guneetan (Gabia-Droga-mendekotasunen Euskal Behatokia) eta Drogomedian (Dokumentazio-arloa). Abiapuntua: 2017.

Gabia-Droga-mendekotasunen Euskal Behatokian erregistratutako bisita-kopurua, 2018an, nabarmen handitu da 2017. urtekoarekin erkatuta.

Kanpoko bisiten erregistroa Gabia-Droga-mendekotasunen Euskal Behatokian

	2017	2018
Euskadiko adikzioei buruzko inkesta	45	651
Jardunbide egokiak	85	232
Alerta-sistemak	65	268
Argitalpen teknikoak	50	295
Adikzioen eta droga-mendekotasunen baliabideak	15	1.499

Adikzioen webguneko beste zerbitzu batzuetan, bisita hauek erregistratu dira:

Kanpoko bisiten erregistroa beste zerbitzu batzuetan

	2018
Adikzioen hasierako orria	10.363
Droga eta adikzioei buruz: Jokaerazko adikzioak	6.170
Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Plana	3.495
Non bilatu laguntza?	1.811
Kerik gabeko gazteak	1.764
Droga eta adikzioei buruz: Anfetamina	1.789
Droga eta adikzioei buruz: Kokaina	1.304

Drogomedian erregistratutako datuei dagokienez, 2018an, saio-kopurua % 28 igo da 2017ko zenbatekoarekin erkatuta.

Bisiten erregistroa Drogomedian

2017	2018
24.493	31.265

### 27. Jardunbide egoki gisa kalifikatutako urteko jarduketan kopuruaren areagotze progresiboa, osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko arloan. Abiapuntua: 2017.

2018. urtean, apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, garatzeko dekretua prestatzeko aurretiko azterketa- eta analisi-fasea burutu da; dekretu horren xedea izango da adikzioen arloan jardunbide egokietarako eta ibilbide profesionaletarako aintzatespenak sortzea eta arautzea. Aintzatespen horien asmoa da adikzioen eremuan diharduten pertsona fisiko edo juridikoen, erakunde publiko edo pribatuen edo administrazio eta instituzio publikoen ibilbide profesionalaren balioa azpimarratzea. Halaber, **pertsona edo erakunde horiek adikzioei lotutako prebentzioaren, laguntzaren, gizarteratzearen, prestakuntzaren eta ikerketaren arloetan garatu dituzten jardunbide egokien garrantzia nabarmentzeko helburua dute.**



## 5 ARDATZA. LIDERGOA ETA KOORDINAZIOA

### Prozesuaren adierazleak

28. Bilera-kopurua adikzioen arloko araudia betetzen eta planak garatzen inplikaturik dauden agenteekin.

	Bilera-kopurua
2017	37
2018	59

29. Adikzioen Euskal Kontseiluaren eta Adikzioen Institutuzio arteko Batzordearen saio-kopurua.

	Adikzioen Institutuzio arteko Batzordea	Adikzioen Euskal Kontseilua
2017	2	1
2018	0	0

### Inpaktu-adierazleak

30. 1/2016 Legean ezarritako xedapenak jasotzen dituzten 2016ko apirilaren ondorengo udal-ordenantzen kopurua.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko Legearen ostean, ez da ordenantza berririk argitaratu Euskadiko udalerrietan.

31. 2017 eta 2021 artean garatutako prebentziorako udal- eta foru-planen kopurua.

	Tokiko planak
2017	46
2018	47

Oharra: indarrean dauden edo prestatzen ari diren tokiko planen kopurua jasotzen da

32. 2017 eta 2021 arteko komunitate-prebentziorako programen kopurua.

	BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA		Proiektuak, guztira
	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	
2017	23	191	18	117	3	20	328
2018	22	77	20	91	3	9	177

Taula horrek erakusten du zenbat proiektu aurkeztu duten toki-erakundeek laguntzei buruzko agindurako. Laguntzei buruzko agindu horren arabera, toki-erakunde baten programa bakoitza eskaera batean zehatzen da eta proiektu bat edo batzuk har ditzake barne.

2018an, proiektu-kopuruak behera egin du 2017ko datuekin erkatuta. Antza, horretarako arrazoiak laguntzak kudeatzeko plataforma telematikoko berriaren ezarketa da; izan ere, plataforma horrek komunitate-prebentziorako programa bakoitzaren barruko proiektuak taldekatzeko eta horien kopurua murrizteko joera dauka.

**33. Arriskuak eta kalteak murrizteko eta jokabide osasungarriak sustatzeko proiektuen kopurua finantzaketa publikoa duten adikzioen arloan, 2017-2021 aldian.**

Taula honetan, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren esparruan, 2017ko eta 2018ko deialdietan, diru-laguntza jaso duten hirugarren sektoreko erakundeen proiektuen kopurua jasotzen da.

	<b>BIZKAIA</b>	<b>GIPUZKOA</b>	<b>ARABA</b>	<b>PROIEKTUAK, GUZTIRA</b>
	Proiektu-kopurua	Proiektu-kopurua	Proiektu-kopurua	
<b>2017</b>	40	15	10	<b>65</b>
<b>2018</b>	46	16	10	<b>72</b>

## 1. ARDATZA: Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena

**HELBURU OROKORRA:** Osasunaren sustapena bultzatzea, pertsonak gaitzeko beraien osasuna baldintzatzen duten elementuen gainean kontrol handiagoa izan dezaten, substantzien eskaria murrizten eta adikziorik gabeko bizitza eramaten lagunduko duten inguruak garatuz eta trebeziak eskuratuz. Eta, aldi berean, babeserako faktoreak indartzea, adikzioen eragina eta prebalentzia murriztea eta horien aurrekari diren arrisku-faktoreak eta jokabideak gutxitzea.

**1.1 helburua.** Osasunaren sustapena eta prebentzio unibertsala bultzatzea adikzioen eredu bio-psiko-sozialetik eta komunitatearen ikuspegitik, sektoreen arteko lana, erakundeen arteko koordinazioa eta hirugarren sektorearekin eta beste eragile batzuekin izan beharreko lankidetzak bultzatuz.

**1.1.1 Osasuna baldintzatzen duten gizarte-alorreko elementuen eta osasun-alorreko ekitatearen ikuspegia sartzeko adikzioen alorrean lan egiten duten gizarteko eta erakundeetako zenbait sektoreekin gauzatutako esku-hartzeetan.**

Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Zerbitzuak modu sistematikoan sartzen ditu osasuna baldintzatzen duten gizarte-elementuak bai beraren partaidetzaz bultzatzen diren bai kanpoan egikaritzen diren azterketa eta lanetan. Horrela, honako hauek kontuan hartzeko irizpideak txertatzen dira: auzoen maila sozioekonomikoa, gizonen eta emakumeen partaidetza haien beharren arabera, adin-taldeak berain ezaugarriekin eta bai hirien bai herrien ordezkartza. Unibertsalismo proportzionalaren printzipioa aplikatzen da; horren arabera, biztanle guztientzat eskuragarri dauden ekimen unibertsalak abian jartzen dira eta urrakortasun-egoeran dauden biztanle-taldeetan arreta berezia jartzen da.

**1.1.2 Komunitatearen partaidetza sustatzea tokiko sareetan, osasuna eta ongizatea sortzen dituzten eta adikziozko jokabideak saihesten laguntzen duten faktoreak identifikatzeko, arreta berezia jarriz urrakortasun-egoeran dauden gizarteko taldeetan.**

- 2018an, **osasuneko ekintza komunitarioa** garatu da (tokiko osasun-sareak), populazio-osasuneko esku-hartzeen bidez. Tokiko eremuko eragileek parte hartu dute eta haiek izan dira protagonistak. Gainera, zerbitzu publikoek, erakundeek eta herritarrek esku hartu dute (oro har osasunaren gaineko esku-hartzeak izan dira, baina zalantzarik gabe eragina eduki dute adikzioen prebentzioan).
- Urtero **osasun komunitarioari eta osasun-sustapenari buruzko jardunaldia** egiten da. 2017ko maiatzaren 12an, gaia honako hau izan zen: “Kontsultatik politiketaraino, gizarte-baldintzatzaileengan jarduten biztanleriaren osasuna hobetzeko”. 2018ko apirilaren 4an, “Udalerria osasuna sortzeko gune bezala” landu zen.
- **Droga-menpekotasunen Deusto Institutuaren 2018ko sinposioak**, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak finantzatuak, gai hau eduki zuen: “Garapen komunitarioa, osasuna eta bizi kalitatea”.

1.1.3 Osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentzio unibertsalerako programak eta jarduketak bultzatzen jarraitzea familiako, eskolako, aisiako, komunitateko eta laneko eremuetan. Hauek, hain zuzen ere:

- Hezkuntza-komunitateari zuzendutako osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentzio unibertsalerako baliabide didaktikoak eta tresna bereziak sortzea.
- Osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentzio unibertsalerako baliabide didaktikoak eta tresna bereziak prestatzea, hezkuntza ez arautuan eta ez formalean erabiltzeko.
- Adingabeei eta gazteei jokabide osasungarriak eskuratzen lagunduko dieten gaitasunak, trebeziak eta tresnak emango dizkieten jarduketak bultzatzea.
- Gazteei zuzendutako aisia alternatibo eta osasungarrirako ekimenen garapena sustatzea (eskola orduetatik kanpo).
- Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko dagoeneko martxan dauden programak bultzatzea.
- Osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentziorako programak bultzatzea lan-eremuan, horretarako Osalanekin elkarlanean arituz. Horretarako, lan-eremuan droga-mendekotasunei eta adikzioei buruzko programak, akordioak eta jarduketa-programak garatuko dira, horien eraginak murrizteko helburuarekin.

• **Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzei buruzko agindua**, hirugarren sektoreari, toki-erakundeei, udalei eta mankomunitateei zuzendua, bai adikzioen prebentziorako eta osasunaren sustapenerako proiektuak garatzeko, bai adikzioen prebentzio komunitariorako taldeak mantentzeko.


2017rako eta 2018rako guztizko aurrekontua: 2.618.400 € urte bakoitzerako.

Laguntza-ildo bakoitzerako zenbatekoen banaketa 2017an eta 2018an

	Talde teknikoaren mantentzea		Toki-erakundearen prebentzio komunitarioko proiektuak		Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundearen proiektuak		Guztira
	Erakunde-kopurua	Aurrekontua	Proiektu-kopurua	Aurrekontua	Proiektu-kopurua	Aurrekontua	
<b>2017. urtea</b>	34	1.174.135	328	561.765	65	882.500	2.618.400
<b>2018. urtea</b>	36	1.174.135	177	561.765	72	882.500	2.618.400

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803388a.shtml>

• 2016-2017ko ikasturtean **ICEBERG programa** ezarri zen. DBHko ikasleen artean alkohol-kontsumoaren prebentzio unibertsala egitea du xede, emozioen kudeaketan eta asertibotasunean oinarrituta dago eta hiru euskarri hauetan egituratuta dago: substantzia, ingurunea eta pertsona. 2017-2018ko ikasturtean, 24 herritako 47 ikastetxetan garatu zen.



[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones\\_alcohol\\_programas/eu\\_def/adjuntos/Aurkezpena%20eta%20justifikazioa.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_alcohol_programas/eu_def/adjuntos/Aurkezpena%20eta%20justifikazioa.pdf)

- **Prebenitzeko eta arriskuak murrizteko programa**, berariaz **alkohol-kontsumoari buruzkoa**, DBHko laugarren mailako, batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleei zuzendua, Eusko Jaurlaritzak zuzenean finantzatua.

	Tailer-kopurua	Ikastetxe-kopurua	Parte hartu duen ikasle-kopurua	Herri kopurua
<b>2017</b>	230	89	4.077	44
<b>2018</b>	238	78	4.357	38

- Alkohol-kontsumoaren prebentzioa eskola-ingurunean, **Mimarte antzerki-proiektuaren** bidez.

	Antzeppen-kopurua	Herri kopurua	Parte-hartzaileen kopurua
<b>2017</b>	36	27	2.238
<b>2018</b>	40	23	2.300

Taula horretan, Mimarte programari buruzko datuak jasotzen dira, guztira, bai Eusko Jaurlaritzak zuzenean finantzatutako antzeppenak bai toki-erakundeek bultzatutakoak.



<http://www.teatromimo.com/Informes/2017%20Mimarte%20Euskadi%20Eus.pdf>

<http://www.teatromimo.com/2018%20Mimarte%20Euskadi.pdf>

- **Jai-eremuko prebentziozko esku-hartzeak**, 1.3.12 ekintzan (*Testinga*, alkoholimetriak eta lonjak) deskribatutakoak.
- **Banaketa arduratsua** programa eta **prestatzaileen prestakuntza**, ostalaritzako langileentzat eta adingabeekin lan egiten duten profesionalentzat, adibidez, astialdiko begiraleentzat eta

	Tailer-kopurua	Herri kopurua	Profesional-kopurua
2017	21	23	302
2018	28	16	335


Aurreko taulan, Eusko Jaurlaritzak zuzenean finantzaturako tailerrak jasotzen dira. Tailer batera zenbait herritako profesionalak joan daitezke; hori dela-eta, 2017an 23 herritako profesionalak hartu zuten parte bakarrik 21 tailerretan.

- **Kerik Gabeko Gazteak programa**, “Tabako-kerik Gabeko Euskadi” estrategian kokatua; truke-eta elkarrizketa-programa da, tabakoarekin zerikusia duten alderdi anitz lantzeko. Bertan, lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleek eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek parte hartzen dute, eta hezkuntza-komunitate guztia eta familiak inplikatzeko dituzte. Ekimen horren bidez, Euskadiko ikasleen artean tabakoa kontsumitzen hasteko adina atzeratu, nerabeen artean jokabide osasungarriak garatu eta tabako-kerik gabeko eskola-ingurune bat bermatu nahi da.

Programaren amaieran, lehiaketa bat antolatzen da, non ikasleek ikasturte bakoitzean proposatzen den gaiarekin zerikusia duen irudi bat egiten duten.

#### Kerik Gabeko Gazteak

	Parte hartu duen ikasle-kopurua				Ikastetxe-kopurua			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2016-2017	1.497	2.782	1.900	6.179	18	33	26	77
2017-2018	1.946	2.787	2.549	7.282	21	31	27	79



<http://www.euskadi.eus/informazioa/kerik-gabeko-gazteak/web01-a3tabaco/eu/>

- **Kerik gabeko gazteak – Kerik gabeko Araba**, “Tabako-kerik Gabeko Euskadi” estrategian kokatua, ekintza komunitarioa da, eta haren helburua da biztanleen artean eta batez ere gazteen artean bizi-estilo osasungarriak sustatzeko ahaleginak batzea. Honako hauek osatzen dute: Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko eta Osakidetzako Araba eskualdeko profesionalak; Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko, Amurrioko Udaleko eta Laudioko Udaleko prebentzio komunitarioko taldeek; eta Arabako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeak.

<https://arabasinhumo.wordpress.com/>

- **Prebentzio-eredu islandiarrari buruzko jardunaldia**, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak antolatua; bertan, lehendakaria, Osasuneko sailburua eta Jón Sigfússon, Ikerketa eta Análisi Sozialerako Islandiako Zentroko zuzendaria, Youth in Iceland delakoaren arduraduna, egon ziren. Bizkaiko Osasun Ordezkaritzako ekitaldi-aretoan izan zen, 2017ko urriaren 18an. 100 pertsonak hartu zuten parte.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako ordezkarien eta EAeko zenbait udalen partaidetza **Planet Youth-i buruzko Nazioarteko Jardunaldietan**; Tarragonan izan ziren, 2018ko apirilaren 17an eta 18an.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren partaidetza eta finantzaketa **Droga-menpekotasunen Deusto Institutuak lan-eremuan drogen kontsumoa prebenitzeari buruz antolatutako jardunaldian**. 2018ko urriaren 15ean egin zen eta gaiari buruzko jokabide egokiak zabaltzeko balio izan zuen, adibidez, Amurrioko Udalak argitaratutako gida, “Las Drogas no van a trabajar”.
- **Euskadin Haurren Obesitatea Prebenitzeko Estrategiaren** idazketan parte hartzea; jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapena jasotzen du.
- **Mugiment programa**, euskal erakundeek garatua; osasun- eta kirol-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatzen du, jarduera fisikoa tokiko mailan sustatzeko. 2018an, 23 Mugiment sare daude 3 lurraldeetan.
- Urtero **eskola-bideak sortzeko eta dinamizatzeko laguntzak** iragartzen dira; eskolako ikasleek erabil ditzaketan ibilbide finkatuak eta markatuak dira, ikastetxerako joan-etorria oinez, modu aktiboan, segurtasunez eta autonomiaz egin dezaten.

#### 1.1.4 Hezkuntzako curriculumetik osasuna sortzen duten eta adikzioen aurrean babesten duten alderdiak indartzea.

- Adikzioen prebentzioa euskal curriculumean txertatzen da (**Heziberri 2020**, <https://www.euskadi.eus/heziberri/aurkezpena/web01-a3hbhezi/eu/>), hezkuntza-maila eta -ziklo guztietan zehar.

Horrela, bai oinarriko hezkuntzan bai batxilergoan **“Drogen (nagusiki alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren) kontsumoaren eta substantziarik gabeko adikzioen prebentzioa”** txertatzen da **“Osasunaren eta norberaren ongizatearen zaintzaren autorregulazioa”** gaian, **“Izaten ikasteko gaitasunaren”** barruan. **“Gaitasun zientifikoan”** ere txertatzen da adikzioen prebentzioa, **“integrazio-egoeren”** barruan, hots, integrazio pertsonalean, sozialean, akademikoan eta lanekoan.

Era berean, azpimarra daiteke **“gaitasun digitalak”, “sareko interakzioko segurtasunari”** dagokionez, **“adikzioak, dibertimenduak eta emozio-oreka”** aintzat hartzen dituela, **“teknologiaren erabilerarekin zerikusia duten osasun-arriskuei”** eta ongizate fisiko eta psikologiko orokorrari lotuta. Gainera, **“gaitasun motorrak”, “eduki komunak”** barruan eta jarduera fisikoari eta osasunari lotuta, honako hau aipatzen du erdiespen gisa: ikasleek barnera ditzatela **“osasunerako onuragarriak diren aztura sozialak, adibidez, elikadura egokia, atsedena, bizi-estilo aktiboa eta osasunerako kaltegarriak diren azturei, hala nola sedentarisismoari, droga-mendekotasunari, tabakismoari edo alkoholismoari, buruzko gogoeta kritikoa”**.

1.1.5 Adikzioek osasunean eta pertsonen bizi-kalitatean eta beraien ingurunean duten eraginari buruzko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekintzak garatzea. Zehatzago esanez:

- Substantzia jakin batzuei eta portaera-adikzioei buruzko sentsibilizazio-kanpainak eta bestelako ekintzak, alkoholak bezala gizartean onarpen-maila altuagoa duten substantziek sortzen dituzten kalteetan eta gazteei eragiten dieten adikzioetan arreta berezia jarritz.
- Batez ere hezkuntzako eta komunikazioko profesionalei zuzendutako jarduerak.
- Sare sozialetan komunikazio estrategiak diseinatzea eta ezartzea.
- Adikzioei buruzko informazioaren eta ezagutzaren hedapena errazteko helburuarekin, komunikazio-estrategia bat garatzea komunikabideetan, batez ere EITBn eta titulartasun publikoko beste komunikabide batzuetan.

• **Mugikorretarako ZAINDU aplikazioa** diseinatzea eta abian jartzea; nerabeei, gazteei, gurasoei, haurdun dauden emakumeei eta hezkuntzako, ostalaritzako eta erakundeetako eragileei zuzenduta dago. Alkohol-kontsumoaren ondorioei buruzko frogak ematen ditu, baita kontsumo horri buruzko mito faltsuak alboratzeko arrazoiak ere.



- **Banaketa arduratsuari buruzko programa**, 1.1.3 ekintzan aipatutakoa.
- **Profesionalentzako prestakuntza Iceberg programari buruz**, hezkuntza-eremuko prebentziorako.

2017an, 11 ikastetxetako 187 irakaslek hartu zuten parte hezkuntza-eremuan adikzioak prebenitzeari buruzko lantegietan.

• **Nerabeentzako erakusketa ibiltaria, kalamu-kontsumoaz sentsibilizatzeko, kontzientziazteko eta haren arriskuak murrizteko**. 8 panelez osatutako erakusketa; bertan, kalamuaren abusuzko kontsumoaren arriskuen eta ondorioen berri eman zen. 2018ko azken hiruhilekoan 4 udalerritan instalatu zen: Bilbon (Santutxuko Udaltegian eta Abandoko Udaltegian), Agurainen, Nanclares Okan eta Murgian. Jende guztiarentzat zabalik egon zen eta ikastetxeetako taldeek bisitatu zuten. Guztira, 17 ikastetxek eta 14 urtetik 18 urtera arteko 1.725 ikaslek hartu zuten parte.

• **Jai-inguruneetan alkohol-kontsumoaz sentsibilizatzeko kanpaina**; bertan, toki-erakundeekin koordinatuta eta jai-batzordeekin, konpartsa eta txosnetako arduradunekin, ostalaritzako profesionalekin eta abarrekin elkarlanean, prebentzio-mezuak hedatzen dira, baita materialak ere, adibidez, kartelak eta alkohol-kontsumoa saihesteko erregletak. 2017an eta 2018an,



kanpaina hori, “Aukeratu zure udako argazkia” izenekoa, “Zainduren” lema orokorraren barruan sartu zen.

	Toki-erakundeen kop.	Kartel-kopurua	Erregleta-kopurua	Alkoholimetro-kopurua
2017	22	1.500	6.000	5.350
2018	21	1.000	9.000	9.000

• **Alkohol-kontsumoaren prebentzioari buruzko materiala banatzea, Osakidetzako lehen mailako arretako zentroetan:**

Triptikoak:

- “Alkoholaz jakin behar duzuna”



- “Zaindu zure gorputza. Zaindu zure txikia”



	Osasun-zentroen kopurua	Banatutako triptikoen kopurua
2017	16	6.000
2018	16	6.000

• KREIk (Kriminologiaren Euskal Institutuak) **alkoholari, adingabeei eta komunikabideei buruz** egindako **azterketa**, komunikabideetan alkohol-kontsumoari buruzko informazioari tratamendu egokia ematea baldintzatzen duten elementuak ezagutzeko helburuarekin.

• **Tabakorik gabeko Munduko Eguna** dela-eta, 2017ko maiatzaren 30ean eta 2018ko maiatzaren 31n, **prentsaurrekoak egin ziren** Osasun Sailak eta Osakidetzak tabakorik gabeko euskal gizartea lortzeko helburuarekin egin dituzten jarduketan berri emateko.

<https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/38928>

[https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/46192-consejero-salud-jon-darpon-revela-los-datos-referentes-situacion-del-tabaco-euskadi?criterio\\_id=782730&track=1](https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/46192-consejero-salud-jon-darpon-revela-los-datos-referentes-situacion-del-tabaco-euskadi?criterio_id=782730&track=1)

• Osasun-zentroetan eta ospitaleetan **“Bizi tabakorik gabe. Aukeratu zure unea”** materiala banatzea. Hona hemen hori osatzen duten elementuak:

- Kartel bat: “Aukeratu zure unea. Galdetu zure osasun-zentroan edo deitu 94 400 75 73 telefono-zenbakira”.
- Zenbait triptiko: “Tabakoaren mende al zaude?”, “Eta zergatik ez zuk?”, “Aita edo ama bazara zuretzako da”, “Lortuko dut! Saiatu berriro!”, “Zer irabazten dut nik tabakoari utzita?”.
- Bi gida: “Lortuko dut. Bizimodu berria hasi. Tabakorik gabeko haurdunaldia” eta “Lortuko dut. Erretzeari uzteko gida praktikoa. Tabakorik gabeko etorkizuna”.

2017an eta 2018an, urte bakoitzean 1.000 kartel, triptiko bakoitzaren 30.000 ale eta gida bakoitzaren 30.000 ale banatu dira.

“Tabakorik gabe bizi. Aukeratu zure unea”

	Kartelak	Triptikoak	Gidak
<b>2017</b>	1.000	180.000	60.000
<b>2018</b>	1.000	180.000	60.000



• Tabakorik gabeko Munduko Eguna dela-eta, 2017an eta 2018an **Familia eta Komunitate Medikuntzaren Espainiako Sozietatearekin elkarlanean** aritu gara, urte bakoitzean 50.000 liburuxka eta 2.250 kartel inprimatuz eta banatuz.


2017an, Kerik gabeko XVIII. Asterako kanpainaren lema “Zigarro gutxiago eta kirol gehiago. Menos cajetilla y más zapatilla” izan zen.

2018an, Kerik gabeko XIX. Asteak lema hau eduki zuen: “¡Para disfrutar a saco no necesitas tabaco! Gozatzeko... Zertarako hainbeste tabako?”.



1.1.6 Esku-hartzeak garatzea biztanleria gizonaren ikuspegia nagusi den osotasun homogenezat ulertu gabe. Horrela, genero-ikuspegia txertatuko da kasu bakoitzean adikzioak sortzen dituzten gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologiko, psikologiko, sozial eta kulturei erreparatuz.

- Badira zenbait urte Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzei buruzko aginduan genero-ikuspegia balorazio-irizpide** gisa sartzen dela. Horren harira, adikzioen prebentzio-programak genero-ikuspegia daukala ondorioztatzen da baldin eta hori diseinatu, egikaritu eta ebaluatzean emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta behar desberdinak kontuan hartzen badira.
- **Kerik Gabeko Gazteak** programak, 1.1.3 ekintzan aipatutakoak, Euskadiko ikasleen artean tabakoa kontsumitzea saihestea edo kontsumitzean hasteko adina atzeratzea du helburu; horregatik, ikasleek ezagutu behar dituzte neska-mutilak tabakoa kontsumitzean hastearen alde egiten duten arrazoiak. Informazio hori, alde batetik, “Erretzen hasi baino lehen hausnartzeko galderak eta erantzunak” materialean aurki daiteke; hain zuzen, galdera-multzo bat da, zeinako galdera bakoitzerako zenbait erantzun baitaude aukeran, ikasleek gai batzuei (ekonomiari, ingurumenari, generoari eta abarri) buruz eztabaidatzeko parada izan dezaten. Bestetik, “Tabako-kontsumoa eta generoa” unitate didaktikoan aurki daiteke, bertan berariaz heltzen baitzaio gai horri.



[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/clases sin humo 17/eu\\_def/adjuntos/kerik%20gabeko%20gazteak/materialak/Ekintza-Tabakoaren-generoaren-mitoak.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/clases sin humo 17/eu_def/adjuntos/kerik%20gabeko%20gazteak/materialak/Ekintza-Tabakoaren-generoaren-mitoak.pdf)

**1.1.6 bis Euskal farmazia komunitarioaren alderdi zabalena eta eraginkorra bultzatu, babestu eta garatea, adikzioen prebentzioari dagokionez, eta, horretarako, farmazialari-elkargo ofizialekin eta farmazia-bulegoekin elkarlanean aritzeko kanalak ezartzea.**

- Euskal farmaziak osasun-eragileak dira, besteak beste, tabakoa erretzeko ohitura uztearen arloan, tabako-kontsumoaren prebentzioan eta metadona-banaketan. 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arteko aldian, 353 farmaziari eman zaie baimena metadona banatzeko programan tarteren batean eta aldi zehatz batean parte hartzeko.

**1.1.6 ter Planaren helburu, ardatz eta ekintzen artean kontsumo arduratsuari buruzko aipamenak sartzea, kontsumoa eta eskaintza murriztea bezain garrantzitsua da eta.**

- 1.4 helburuaren barruan (Gehien kontsumitzen diren eta gizartean onarpen-maila handiena duten substantziak normalizat ez hartzeko jarduketak finkatzea), Euskadiko VII. Adikzio Planak "Adingabeak eta Alkohola programa garatea" ezartzen du 17. ekintzan. Programa horrek, besteak beste, ekintza hauek xedatzen ditu: "Alkoholaren banaketarako prestakuntza-materiala prestatzea" eta "Jardunbide osasungarriak sustatzeko programa bat, ostalaritzari zuzendua, garatea eta hedatzea".

- Ostalaritzako banaketa arduratsuari buruzko programa eta alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteari buruzko prestakuntza, gazteekin eta adingabeekin harremanetan lan egiten duten pertsonentzat.

Tailerren kopurua lurralde historikoen arabera

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
2017	2	13	7	22
2018	3	18	7	28
Guztira	8	31	14	53

<http://www.euskadi.eus/informacion/espacio-de-sensibilizacion/web01-a3alcoho/es/>

**1.2 helburua. Osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa bultzatzea arrisku- edo urrakortasun-egoera berezian dauden pertsonengan eta taldeetan.**

**1.2.7 Arrisku- eta urrakortasun-egoera berezian dauden familien, adingabeen eta pertsonen hautemate goiztiarrerako esku-hartze eraginkorrak indartzea, baita jarraipenerako eta ebaluaziorako sistemak ere.**

- Badira urte batzuk jarduketa hau Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzei buruzko aginduan** sartzen dela eta balorazio-irizpidetzat jotzen dela, batez ere adingabeentzat bada. Zehatz-mehatz, prebentzio-programak xede dituen taldeen edo pertsonen **arrisku-maila** (hau da, urrakortasuna edo bazterketa, alegia, kontsumoak, jokabide arazotsuak edo bestelako arrisku-egoerak eragiteko probabilitate altua dakarten norberaren, familiaren, gizartearen edo ingurumenaren ezaugarriak) aintzat hartzen da, batez ere alkohol-kontsumoaren prebentziorako programek xede dituzten adingabeak badira.

### 1.2.8 Arrisku- eta urrakortasun-egoera berezian dauden taldeei eta pertsoneri zuzendutako programak finkatzea eskolako, familiako, laneko eta aisiako eta jaietako eremuetan.

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez, zenbait erakundek burutzen dituzten adierazitako prebentzio-proiektuak finantzatzen laguntzen da. Adikzioaren irizpide diagnostikorik ez daukaten baina aurretiko zeinuak, adibidez, substantzia-abusuen sintomak edo jokabide-arazoak, dituzten pertsoneri zuzentzen zaie.

	Hirugarren sektoreko erakundeen proiektuen kop.	Toki-erakundeen proiektuen kop.	PROIEKTUAK, GUZTIRA	Arreta jaso duten pertsonen kop.
2017	4	13	17	2.061
2018	6	0	6	1.616

Adibidez, proiektu hauek aipa daitezke, 2017ko eta 2018ko laguntza-deialdietan diru-laguntza jaso baitute:

- Urrakortasun-egoeran dauden, jokabide disruptiboak dauzkaten eta drogak kontsumitzen dituzten nerabeekiko eta familiekiko esku-hartzea (Deustu-San Inazioko Modulu Psikosoziala).
- Arrisku-egoeran dauden gazteekin eta nerabeekin esku hartzeko Hazgarri proiektua (Jeiki Fundazioa).

### 1.2.9 Adikzioa sortzen duten substantzien kontsumo arazotsuak eta jokabideko adikzioak dituzten nerabeei eta gazteei zuzendutako programen alde egitea, baita teknologia digitalen erabilera egokia bultzatzen dutenen alde ere.

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzei buruzko aginduan balorazio-irizpide gisa** sartzen da proposatutako jarduera berritzailea izatea edo proiektu batean hobekuntza berritzaileak sartzea, aurreko urtekoarekin erkatuta, bereziki portaera-adikzioei dagokienez.
- Gai horri buruz elkarrekin hausnartzeko asmoz, 2018ko apirilaren 13an, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak **portaera-adikzioen kudeaketari buruzko tailer** bat egin zuen, adikzioen eremuko profesional eta langile teknikoentzat. 48 pertsonak hartu zuten parte.

### 1.2.10 Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak martxan jartzea, baldin eta ekintza horiek droga eta ausazko zein online jokoek osasunean eta autonomia pertsonalean duten inpaktuaren arrisku-pertzepzioa eta ezagutza areagotzen laguntzen badute.

- 2018an Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzei buruzko aginduaren** bidez, honako hauek garatzen dira:
  - Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundeen proiektuak: portaera-adikzioei buruzko 11 proiektu, prebentzioa, laguntza psikologikoa eta tratamendua barne hartzen dituztenak, ADSIS Fundazioak, Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarteak, Ekintza Aluvizek, Etorakintzak, Lagaelek, Ekintza Bibek, Oriepsi Orainek eta Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialak garatuak.
  - Adikzioei buruzko tokiko planei atxikitako prebentzio komunitarioko programak, lantegien, informazioaren edo ikastaroen bidez: 19 udalek aurkeztu dituzte programak.

Horietan, prebentzio unibertsal eta selektiboko 45 proiektu barne hartu dituzte, portaera-adikzioei heltzen dietenak, substantziek eragindako adikzioen prebentzioarekin batera.

### 1.3 helburua. Substantzien kontsumoari eta adikzioak sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideei lotutako arriskuak murriztea.

#### 1.3.11 Aisia-guneetan drogen (substantzien) kontsumotik sortutako arriskuak eta sexu-abusuak murriztuko dituzten prebentziozko neurrien identifikazioan aurrera egitea.

- 2017an KREIk (Kriminologiaren Euskal Institutuak) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Adikzioen Zerbitzuak finantzatutako **azterketa** hau egin zuen: **“Alkoholaren kontsumoa eta generoaren indarkeria; epailetzaren, instituzioen eta gizarte-drogomendekotasunen mugimenduetako profesionalen pertzepzioa”**.



[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_gabia/es\\_def/adjuntos/b-1-Consumo-alcohol-violencia%20-genero.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_gabia/es_def/adjuntos/b-1-Consumo-alcohol-violencia%20-genero.pdf)

#### 1.3.12 Jai- eta aisia-eremuetara zuzendutako prebentzio edo/eta arrisku-murrizketarako programak indartzea.

- **Testinga:** jolas-eremuetan egindako prebentziozko esku-hartzeak, pertsonak, batez ere nerabeek eta gazteek, horrelako inguruneetan egiten duten drogen jolas-kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko asmoz. Ibiltariak dira eta jende asko joaten den jai-esparruetan eta tokietan egiten dira. Kontsultei emandako arreta, informazio-materialaren banaketa eta laginak analizatzeko zerbitzua nabarmendu daitezke.

Testing programan parte hartu duten pertsonen kopuruaren eboluzioa

	Toki-erakundeek kop.	Esku-hartzeen kopurua	Pertsona-kopurua
2017	39	47	17.387
2018	39	62	18.046

Taulak programa horren barruan egindako esku-hartze guztiak biltzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzak bai toki-erakundeek garatutakoak.

- **Alkoholimetriak:** alkohol-kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua, aisia-guneetan esku hartuz. Ibiltariak dira eta jende asko joaten den jai-esparruetan eta tokietan egiten dira. Zehatz-mehatz, alkohol-kontsumoaren arriskuei buruzko informazioa

ematen da, alkoholemia-test bat egiten da (informatzeko) eta oinarritzko prebentzio-materiala (alkoholometroak, erregetak, liburuxkak eta preserbatiboak) banatzen dira.

	Toki-erakundeen kop.	Esku-hartzeen kopurua	Pertsona-kopurua
2017	52	73	15.137
2018	48	71	16.371

Taulak programa horren barruan egindako esku-hartze guztiak biltzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzak bai toki-erakundeek garatutakoak.

- **Lonjak:** arriskuak prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua jolas-erabilerak dituzten lonjetan. Zerbitzua ematen duen erakundea lonjetara joaten da eta tokian bertan heltzen die gai batzuei gazteekin, drogen kontsumoari lotutako arriskuen murrizketan sakontzeko eta jokabide horietatik datozen arriskuaren eta ondorioen pertzepzioa areagotzeko helburuarekin.

	Lonja-kopurua	Gazte-kopurua
2017	29	536
2018	53	842

Taulak programa horren barruan egindako esku-hartze guztiak biltzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzak bai toki-erakundeek garatutakoak.


- Laguntzei buruzko aginduaren bidez, Osasun Sailak udalerriek eta hirugarren sektoreko erakundeek eremu horietan burututako programak finantzatzen laguntzen du.
- Toki-erakundeek lan garrantzitsua egiten dute prebentziozko aisiaren arloan, bai udal-mailan bai erkidego-mailan. Adibidez, Prebenfamilia-Araba proiektua aipa daiteke; bertan, Arabako Foru Aldundiak, zenbait udalek, Denon Eskolak eta FAPACNEk hartzen dute parte. Proiektuaren helburua familien prebentzio-zeregina indartzea da, sare-lanaren bidez. Gainera, azpimarratzen du astialdia garrantzitsua dela prebentzioaren alde egiten duten balioak eta azturak garatzeko.

### 1.3.13 Adikzioa sortzen duten substantzien kontsumoaren arriskuaz gehiago jabetzera zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak gauzatzea, kalamuaren kasua azpimarratuz, haren kontsumoak sortzen duen arriskuaren jabetze txikia kontuan izanda.

- Nerabeentzako **erakusketa ibiltaria, kalamu**-kontsumoaz sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta haren arriskuak murrizteko; 1.1.5 ekintzan azaldu da.
- **Jai-inguruneetan alkohol-kontsumoaz sentsibilizatzeko kanpaina;** 1.1.5 ekintzan zehaztu da.

### 1.3.14 Farmako psikotropikoen erabilera neurrigabea prebenitzeko programak eta jarduketak diseinatzea, batez ere emakumeen kasuan.

- Osasun Sailak eta Osakidetzak **Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean nola jardun jakiteko profesionalentzako jarduketa-gida** egin dute. Bertan, arau orokor gisa jasotzen da profesionalek horrelako egoeretan ez dutela antsiolitikorik (edo antidepressiborik) agindu behar; izan ere, botika horiek erreakzionatzeko gaitasuna murrizten dute eta ez dute inoiz indarkeria-egoera konpontzen.



[https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia\\_violencia\\_genero/eu\\_def/adjuntos/guia\\_vg\\_eu.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_violencia_genero/eu_def/adjuntos/guia_vg_eu.pdf)

1.3.15 Jokoaren eta teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera desegokiarekin eta adikzioak sor ditzaketen gehiegizko beste jokabide batzuekin erlazionatutako arriskuak murriztera eta arriskuen pertzepzioa handitzera zuzendutako prebentzio-programak eta -jarduketak diseinatzea.

- **Portaera-adikzioei buruzko tailerra**, profesional eta langile teknikoentzat; 1.2.10 ekintzan aipatu da.
- 2018an, Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak, ASAJERekin elkarlanean, **joko arduratsuko jardunbide egokien 6 eskuliburu** egin ditu, ostalaritzako, joko-aretoetako, bingoetako, makinen operadoreak diren enpresetako, apustu-etxeetako eta kasinoetako langileentzat.



<https://www.euskadi.eus/informazioa/joko-eta-ikuskizunen-argitalpenak/web01-a2joko/eu/>

- Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak **joko arduratsuari eta adingabeei joko debekatzeari buruzko kartelak eta liburuxkak** egin eta banatu ditu, bai joko-etxeetan bai ikastetxeetan.
- Segurtasuneko sailburuordearen jarraibidea, 2017ko azaroaren 13koa, **adingabeek jokoan parte hartzeari buruzkoa**, Ertzaintzarentzat eta udaltzainguentzat.



**1.4 helburua.** Gehien kontsumitzen diren eta gizartearen onarpen-maila handiena duten substantziak normalizat ez hartzeko jarduketak finkatzea.

**1.4.16 “Tabako-kerik gabeko Euskadi” estrategia indartzea.**

• **Kerik gabeko OESlen** (Osasuneko Erakunde Sanitario Integratuen) **egiaztapena**. 2018an, Araba, Berrualde, Galdakao, Deba-Barrena, Goierri-Urola Garaia eta Tolosaldea zeuden egiaztatuta.

• **Kerik Gabeko Gazteak (KGG)**, 1.1.3 ekintzan aipatutakoa, 2011n jarri zen abian, eta bertan Euskadiko 65.000 ikasle inguruk hartu dute parte. 2017-2018ko ikasturtera arte, DBHko 1. eta 2. mailetara zuzentzen zen, baina 2018-2019ko ikasturtetik aurrera lehen hezkuntzako 6. mailakoei ere eskaintzen zaie. Ikasturte bakoitzaren hasieran, material berriak sartzen dira eta eskola-lehiaketarako lantzeko gai berri bat proposatzen da.

Parte hartu duten ikasleak, urtearen arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
<b>2011-2012</b>	3.025	1.379	991	5.395
<b>2012-2013</b>	2.489	6.655	342	9.486
<b>2013-2014</b>	1.948	5.232	4.370	11.550
<b>2014-2015</b>	2.045	4.600	4.024	10.669
<b>2015-2016</b>	1.600	3.292	2.393	7.285
<b>2016-2017</b>	1.497	2.782	1.900	6.179
<b>2017-2018</b>	1.946	2.787	2.549	7.282
<b>2018-2019</b>	1.572	2.875	2.139	6.586

KGG programan parte hartu duen ikastetxeen kopurua, 2011-2019

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
<b>2011-2012</b>	37	21	6	64
<b>2012-2013</b>	28	67	4	99
<b>2013-2014</b>	24	62	53	139
<b>2014-2015</b>	24	51	41	116
<b>2015-2016</b>	18	44	24	86
<b>2016-2017</b>	18	33	26	77
<b>2017-2018</b>	21	31	27	79
<b>2018-2019</b>	12	34	30	76


**1.4.17 Adingabeak eta Adikzioak programa garatzea.**

Hona hemen erakunde arteko programa horren oinarritzko helburuak:

- Nerabeek alkohol-kontsumoaren eta -abusuaren arriskuei buruz duten ezagutza hobetzea.
- Adingabeek alkoholari buruz dituzten hezkuntza eta sentsibilizazioa areagotzea eta haren kontsumoaren ordezkotzako aukera esanguratsuak garatzea.
- Gazteek edateko dituzten presioak murriztea.

- Aktiboki sustatzea bizi-aztura osasungarriak eta jarrerak eta portaerak aldatzea barne hartzen duen osasun-kultura.

Horretarako, programak 6 lan-eremu zehaztu ditu: **komunitatea, adikzioak, hezkuntza, osasuna, araudia** eta **sentsibilizazioa**. Horietan, 35 ekintza kokatzen dira, eta horien barruan erlazionatutako beste 30 jarduketa biltzen dira. Gaur egun, programaren % 85 dago burututa.



[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones\\_menores\\_alcohol/eu\\_def/adjuntos/EgitarauaAdingabeakAlkohola.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_menores_alcohol/eu_def/adjuntos/EgitarauaAdingabeakAlkohola.pdf)

#### 1.4.18 Zigarro elektronikoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen erabileran sentsibilizatzeari buruzko programa berezia garatzea.

- **Kerik Gabeko Gazteak** programan, nikotina aska dezaketen gailuen erabileran sentsibilizatzea barne hartzen da eduki gisa.
- **1/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak**, guztiz parekatzen ditu tabakoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea, kontsumoa, salmenta eta hornidura.

## 2. ARDATZA: Eskaintzaren murrizketa

**HELBURU OROKORRA:** Adikzioak sor ditzaketen substantzietarako eta jardueretarako sarbidea mugatzea, horien kontsumoaren aurrean gizartean dagoen tolerantzia murriztea eta indarrean dagoen arautegiaren betetzea bultzatzea.

**2.1 helburua.** Tabakoaren, alkoholaren eta adikzioak sor ditzaketen legezko beste substantzia batzuen sustapenarekin, publizitatearekin, salmentarekin, hornidurarekin eta kontsumoarekin erlazionatutako jarduerak kontrolatzea.

**2.1.1 Adikzioei buruzko arautegian eskaintzaren eta kontsumoaren murrizketarekin erlazionatuta dauden esku-hartzeak indartzea, inplikaturako eragileen arteko koordinazio hobearen bitartez.**

- **Toki-erakundeetako arduradunekin lan egiteko jardunaldiak**, legezko drogen arloko eskaintzaren kontrolari, ikuskaritzari eta zehapenari buruzko gaiak koordinatzeko; 2018ko azaroaren 28an eta 29an egin ziren. Egoerari heltzeko 2 saio desberdin egin ziren, udalerrien tamainaren arabera. Prebentzio komunitarioko 8 teknikarik eta udaltzain batek hartu zuten parte.

**2.1.2 Eskaintza murriztu eta kontrolatzeko programak garatzea, ostalaritzara zein bestelako guneetara, ekitaldi eta kontsumo- zein salmenta-puntuetara zuzenduak, sustapenean eta salmantan autokontrola eta ardura indartuz, genero-ikuspuntutik, kontuan hartuta adikzioak dituzten emakumezko nerabeak gero eta gehiago direla.**

- **Arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programa**, adingabeekin lan egiten duten profesionalei zuzendua, garatzea, ostalaritzaren eta hezkuntza ez-formalaren eremuan (astialdiko begiraleekin eta kaleko hezitzaileekin). Jarduketa hori 1.1.3 ekintzan ere deskribatu da.

**2.1.3 Tabako, zigarro elektroniko eta alkoholaren arloan ikuskatze- eta zigortze-eskumenaz baliatzean dauden prozeduren protokoloa egitea.**

- Hori izan zen legezko drogen arloko eskaintzaren kontrolari, ikuskaritzari eta zehapenari buruzko gaiak koordinatzeko **toki-erakundeetako arduradunekin lan egiteko jardunaldien** helburuetako bat; jardunaldiak 2.1.1 ekintzan aipatu dira.

**2.1.4 Botika psikotropikoen legez kanpoko banaketa eta merkataritzari buruzko egungo kontrol- eta erregistro-sistemari eustea eta, hala badagokio, hobetzea.**

Adikzioei buruzko Legeak osasun-administrazioak prebenitzeko eta botika psikotropikoak ondo erabiltzeko neurriak xedatzen ditu.

### 2.1.5 Zehapenen aurreko neurri alternatiboak indartzea —legezko eta legez kanpoko substantzien kasuan—, norberaren ekintzen gaineko erantzukizuna indartzeko.

- Kontu hori Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea garatzeko egingo den dekretuan, zehapenak ordeztuko prozedurari buruzkoan, arautuko da.
- Hori izan zen legezko drogen arloko eskaintzaren kontrolari, ikuskaritzari eta zehapenari buruzko gaiak koordinatzeko **toki-erakundeetako arduradunekin lan egiteko jardunaldien** helburuetako bat; jardunaldiak 2.1.1 ekintzan aipatu dira.

### 2.1.5 bis Administrazio publikoek, toki-erakundeek eta ekitaldien sustatzaileek eta antolatzaileek alkoholik eta drogarik gabeko aisia- eta jai-eredu bat sustatu eta erabakitasunez bultzatzea.

- Puntu honetan, **jai-eremuko jarduketak**, 1.3.12 ekintzan aipatutakoak, nabarmendu daitezke.
- 2017an eta 2018an, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez, **aisia alternatiboko eredu bat sustatzeko programa eta proiektuetarako** diru-laguntzak eman dira. Hona hemen adibide batzuk:
  - 2017:
    - Kilometroak Kultur Elkartea: “Drogen eta alkoholaren kontsumorako prebentzioa”, Kilometroak jaietan ingurune osasungarria sustatzeko helburuarekin.
    - Hondarribiko Udala. “Hondar Kirolak eta Ikas-Jolas” gizarte-heziketako esku-hartzeko proiektuak, gazteentzako aisia eta astialdiko esperientzien eskaintza.
  - 2018:
    - Susterra: “Lonjak, gazteak eta alkohola”, aisia-lonjen testuinguruan alkohol-kontsumoa prebenitzeko helburuarekin.
    - Ehige: “Aisia alternatiboa Euskal Eskola Publikoaren 27. Jaian”.



- Hazkunde: “Eraldatzen”. Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programa, gaueko aisia jai-giroko ekitaldi jendetsuetara joaten diren 15-24 urteko nerabe eta gazteentzat.
- Kilometroak Kultur Elkartea: “Drogen eta alkoholaren kontsumorako prebentzioa”, Kilometroak jaietan ingurune osasungarria sustatzeko helburuarekin.
- Hondarribiko Udala: “Hondar Kirolak eta Ikas-Jolas” gizarte-heziketako esku-hartzeko proiektuak, gazteentzako aisia eta astialdiko esperientzien eskaintza.

- Aretxabaletako Udala: Aretxabaleta Kirol Elkartearikiko lankidetzak, nerabeen artean substantzia toxikoen erabilera eta abusua prebenitzeko programa bat garatzeko, kirolaren bitartez bizi-aztura osasungarriak sustatuz.
- EAEko zenbait udalerrik aisia alternatibo eta osasungarriko programak dauzkate. Adibidez, Gasteizko Udalaren **Gauekoak programa**, 16 urtetik 30 urtera arteko gazteentzat.

## **2.2 helburua. Legez kanpoko drogen merkataritza kontrolatzea eta horien eskaintza eta presentzia murriztea.**

### **2.2.6 Legez kanpoko drogen eta talde delitugileen eta eskala txikiko eta handiko banaketa-sareen aurreko esku-hartzeak indartzea, Ertzaintzaren eta tokiko polizia-indarren arteko lankidetzak handiagoa sustatuz.**

Adikzioei buruzko Legeak jarduketa-irizpide batzuk ezartzen ditu EAEko polizia-kidegoek drogen legez kanpoko trafikoen jazarpenean kontuan hartzeko.

### **2.2.7 Zainketa eta alerta goiztiar sistema (SVAT) indartzea.**

- 2017-2018an, **Euskadiko Zaintza eta Alerta Sistema (SVAT)** finkatu da. Haren xedea goraka ari diren drogak eta kontsumo-eredu berriak detektatzea da, eta drogen laginak biltzeko eta analizatzeko sistema batean gauzatzen da. Laginak biltzeko, Osasun Saila Ai Laket elkartearen, Gizakia Fundazioaren eta Ertzaintzaren partaidetzaz baliatzen da. Bestalde, laginak EHuko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren (SGIKER) laguntzarekin analizatzen dira. 2017an 335 lagin analizatu ziren, eta 2018an, aldiz, 296.
- Eusko Jaurlaritzak Arreta Goiztiarrerako Espainiako Zerbitzuari (SEAT) jakinarazten dizkio analizatutako substantzia berriak edo arriskutsuak; zehazki, Drogen Plan Nazionaleko Informazio eta Dokumentazio Sistemen Unitateari.
  - Bi alerta 2017an, uztailan eta azaroan.
  - Bi alerta 2018an, maiatzean eta urrian.
- Badago SVATrako berriazko webgune bat GABIA Adikzioen Behatokian. Esteka honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/alerta-sistema-gabia/web01-a3gabia/eu/>

**2.3 helburua.** Eskaintza murriztea eta moderazio- eta erantzukizun-balioak sartzea jokoarekin eta teknologia digitalekin erlazionatutako jardueren eskaintzan.

**2.3.8** **Sektorearen autokontrolera eta erantzukizunera zuzendutako neurriak bultzatzea, jokoaren eta teknologia digitalen publizitatean eta eskaintzan.**

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza Segurtasun Saileko **Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzarekin elkarlanean** aritzen da eta kontu hauei heltzen zaien foro guztietan parte hartzen du:
  - **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia**; 2017ko ekainaren 30ean eta 2018ko ekainaren 28an bildu zen.
  - **Jokoaren Euskal Kontseilua**; 2017ko ekainaren 30ean, 2018ko ekainaren 28an eta 2018ko azaroaren 15ean bildu zen.
- **Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak eta Jokoaren Euskal Kontseiluak arlo horretan egindako lana.** Adibidez, 1.3.15 ekintzan aipatutako jokabide egokien 6 eskuliburuak.
- **Segurtasuneko sailburuordearen jarraibidea**, 2017ko azaroaren 13koa, adingabeek jokoan parte hartzeari buruzkoa, Ertzaintzarentzat eta udaltzaingoentzat.

### 3. ARDATZA: Osasun-laguntza, laguntza soziosanitarioa eta gizarteratzea

**HELBURU OROKORRA:** Adikzioen eta jokabide eta kontsumo arazotsuen ondoriozko arriskuak eta kalteak txikiagotzea eta, Euskadiko osasunaren eta gizarte-zerbitzuen sarearen bidez, adikzioen fenomenoak dakartzan laguntza-beharrei erantzun jarraitua, koordinatua eta eraginkorra ematea, genero-ikuspegiarekin.

**3.1 helburua.** Osasun- eta gizarte-arretarako sarbidea eskaintzea adikzioak dituzten edo izan ditzaketen pertsonen behar indibidualetan zentratua, pertsona bakoitzaren berezitasunak errespetatuta eta ekitate sozioekonomikoaren eta generoaren ikuspuntutik.

**3.1.1 Hautemate goiztiarreko sistema indartzea, arreta berezia jarriz komunitateko arretako eta lehen mailako arretako baliabideetan, herritarrekin harremanak ezartzeko puntu gisa, profesionalentzako prestakuntza indartuz.**

- **Bai elkarteek bai udal-talde teknikoek** adikzioen prebentzio komunitarioarako **egindako programak mantentzea eta bultzatzea**, Osasun Sailak adikzioen eremuan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez.

Diruz lagundutako proiektuen adibideak:

- Bige Gurasoen elkarteak: “Urrakortasun-faktoreei eta kontsumo problematikoei buruzko esku-hartze goiztiarra adingabe eta familiekin, eskola-eremutik”.
- Etorkintza: “Eskola-eremuan osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko proiektua”.
- Agipad: “Gipuzkoako udalerrietan prebentzio selektibo komunitarioa egiteko proiektuak”.

**3.1.2 Talde espezifikoari eta urrakortasun-egoeran daudenei eskaini beharreko arretan hobetzeko alderdiak identifikatzea: talde horien behar bereziak aztertzea, hautemate- eta tratamendu-baliabideak hobetzea eta gizarte-zerbitzuen, lehen mailako arretako zerbitzuen eta buru-osasuneko zerbitzuen arteko koordinazioa indartzea. Zehazki, honako hauei emango zaie berariazko arreta:**

- **Patologia duala eta patologia anizkoitzak dituzten pertsonak.**
- **Familiako erantzukizunak gain hartzeko presio handiagoa izateagatik eta gizartean estigmatizazio handiagoa izateagatik tratamenduan hasteko gizona bakoitzak baino zailtasun gehiago eta eboluzio okerragoa dituzten emakumeak.**
- **Adikzio-arazoak edo horiek izateko arriskuak dituzten adingabeak.**
- **Adikzio-arazoak edo horiek izateko arriskuak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak.**

- **Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean nola jardun jakiteko profesionalentzako jarduketak-gidan** (1.3.14 ekintzan aipatu da), adikzio-arazoak dituzten emakumeei buruzko berariazko apartatu bat sartu da.

- **Talde horiek xede dituzten esku-hartzeak sustatzen dituzten proiektuak**, Osasun Sailak laguntzei buruzko aginduaren bidez emandako finantzaketarekin elkarteek egiten dituztenak, mantentzea eta bultzatzea. Hona hemen adibide batzuk:

- ASAJER: “Portaera-adikzioak dauzkaten pertsonen tratamendua”.
- JEIKI FUNDAZIOA: “Adikziozko jokabideak dituzten pertsoneri arreta ambulatorioa emateko proiektua”.

### 3.1.3 Desintoxikatzeko eta ohitura kentzeko dauden programak finkatzea.

• Adikzioen prebentzio komunitarioko **udal-talde teknikoek**, laguntzei buruzko aginduaren bidez tabakoa erretzeko ohitura kentzeko programak burutzen dituztenek, **egindako programak** mantentzea eta bultzatzea. 2017. eta 2018. urteetan, hauek izan ziren:


- Laudio: tabakoa erretzeko ohitura kentzeko programa; haren xedea da kontsumoa murriztea edo desagerraraztea eta aldaketa denboran zehar bermatzeko tresna psikologikoak ematea. 2017an 44 pertsonak hartu zuten parte.
- Getxo: tabakoa erretzeko ohitura kentzeko programa. Komunitateari erretzeko aztura uzten laguntzeko ikastaroak.

• **Tabako-mendekotasunaren tratamendurako** programa, Osakidetza. 2011n abian jarri zenetik, gutxi gora behera 22.500 pertsonak jaso dute tabakoa kontsumitzeari uzteko tratamendua, banakako eta taldeko esku-hartzeen bitartez.

Lehen mailako arretan tabako-mendekotasunerako tratamendua jaso duen pertsona-kopurua

	Taldekoa Guztira			Banakakoa Guztira		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<b>2017</b>	543	372	915	1.076	989	2.065
<b>2018</b>	306	218	524	944	915	1.859

Iturria: Osakidetza





### 3.1.4 Osakidetzarekin lankidetzan aritzea alkoholaren kontsumoa prebenitu, era goiztiarrean detektatu, diagnostikatu eta tratatzeko esku-hartzeen koordinazioan.

- **Adingabeak eta Alkohola programan** (1.4.17 ekintzan aipatu da), helburu hori lortzeko xedea duten jarduketak barne hartzen dira.
- Osakidetzak adingabeengan alkoholaren kontsumoa prebenitu, diagnostikatu eta tratatzeko esku-hartze programa bat dauka.



[https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_trbg\\_planes\\_programas/eu\\_def/adjuntos/programa\\_menores\\_y\\_alcohol\\_2018\\_eu.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/programa_menores_y_alcohol_2018_eu.pdf)

### 3.1.5 Kalamuaren kontsumoarekin erlazionatutako arazoak dituzten pertsonen zuzendutako hautemate-, laguntza- eta tratamendu-ekimenak garatzea.

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez, **talde horiei zuzendutako eta erakundeek garatutako esku-hartzeak** mantentzea eta bultzatzea.
  - 2017an:
    - Oriepi Orain: “Prebentzio adierazia kalamuaren ohiko erabiltzaileekin”. Arriskuak eta kalteak murrizteko programa, kalamua kontsumitzen duten eta Euskadiko kalamu-kontsumitzaileen klubetako kide diren helduentzat.
  - 2018an:
    - Taima Club Social de Cannabis: “Arriskuak prebenitu eta murrizteko programa”. Kontsumo-ereduak eta horiek erabiltzaileen artean dituzten ondorioak ebaluatzeko, horiei buruzko informazioa emateko eta horien gainean jarduteko pentsatutako proiektua, arriskuen prebentzioaren eta murrizketaren arloan prestakuntza-, informazio- eta partaidetza-tresnak egiteko asmoz.

### 3.1.6 Joko patologikoa, teknologia digitalen adikziozko erabilera eta adikzioa sor dezaketen beste jokabide batzuk dituzten pertsonen zuzendutako arreta integralerako, tratamendurako eta kudeaketarako ekimenak zerbitzu publikoetatik indartzea.

- **Osakidetzako Osasun Mentaleko Sarea** da pertsona horiei arreta eta tratamendua emateko arduraduna.

### 3.1.6 bis Xede terapeutikoak dituzten drogen erabilera nazioarteko komunitatearen zientzia- eta osasun-bermean edo kalteak murrizteko programetan oinarritzea.

GABIA Adikzioen Behatokian, modu sistematiko eta eguneratuan txertatzen dira drogek populazio-osasunean dituzten ondorioei (negatiboai eta positiboai) buruzko txostenak eta azterketak, oinarri zientifikoa dutenak.

### 3.2 helburua. Urrakortasun-maila altuan eta gizartetik baztertuta dauden pertsonen tratamendua, arreta eta baliabideak jasotzeko modua bermatzea.

3.2.7 Baztertze-egoera larrian dagoen eta hondatze fisiko, psikiko eta sozial handia duen pertsonari arreta integrala ematea sustatzen duten jarduketak, baliabideak eta esku-hartzeak sendotzea eta ekintzak garatzea. Hala, arreta horren baitan arriskuak zein kalteak murriztea, pertsona horren oinarritzko beharretarako laguntza eta estaldura sartuko dira, neurri penalak dituzten droga-mendekoak ere barnean hartuko dira eta kontuan hartuko da egoera horretan dauden emakumeekiko gutxiespen eta bazterketa sozial handiagoak.

• **Baliabide soziosanitarioak eta kalteak murriztekoak** mantentzen dira. Zenbait erakundek finantzatzen dituzte elkarrekin: Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak.

ERAKUNDEA	BALIABIDEA	2017	2018
Hiesaren Aurkako Bizkaiko Herri Batzordea	Eskakizun txikiko eta arreta eta larrialdi soziosanitarioko eguneko baliabidea gizarte-bazterketako egoeran dauden droga-mendekoentzat	76.000	76.000
Gizakia fundazioa	Bilbon adikzioei arreta emateko zentro soziosanitarioa. "Andén 1"	166.101	166.101
Bilboko Elizbarrutiko Caritas	"HONTZA" gaueko larrialdi- eta harrera-zentroa	146.130	146.130

• Laguntzei buruzko aginduaren bidez, **talde horiek xede dituzten esku-hartzeak sustatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeen programak** mantentzea eta bultzatzea.

– 2017 eta 2018

- Deustu-San Inazioako Laguntza Psikosozialeko Modulua: pertsona zigortuei edo presoai gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko proiektua.
- Gao Lacho Drom Ijito Elkartea: drogak erabiltzen dituzten biztanle ijito zigortuak gizarteratzeko eta errehabilitatzeko proiektua.

### 3.2.8 Dauden baliabideetara eta programetara sartzeko irizpideak berrikustea, adikzioekin erlazionatutako arazoaren aurrean sentsibilitate handiagoa bultzatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko Legeak osasun-zerbitzuek bete beharko dituzten irizpide batzuk ezartzen ditu.

### **3.3 helburua. Koordinazio soziosanitarioa indartzea larrialdietako protokoloetan eta maila guztietako arretetan.**

**3.3.9 Eusko Jaurlaritzak eta eskumenak dauzkaten gainerako erakundeek osasun- eta gizarte-sektoreen arteko koordinazio-mekanismoak aztertzea eta, hala badagokio, garatzea, ezartzea eta lan egiten jarraitzea, adikzioak eta arazoak sortzen dituzten jokabideak eta kontsumoak dituzten pertsonen arreta integrala eta eraginkorra bermatzeko, arretarako ibilbideak eta protokoloak era adostuan definituz.**

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak **Euskadiko arreta soziosanitarioaren arduradunarekiko topaketak eta bilerak** egiten ditu aldizka.
- **Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak** tabako eta alkoholaren arloaren eta Osasun Mentaleko Sarearen **Osakidetzako arduradunekin egindako aldizkako bilerak**.

## 4. ARDATZA: Ezagutzaren, prestakuntzaren eta ebaluazioaren kudeaketa

**HELBURU OROKORRA:** Adikzioen eta horien zergatien eta ondorioen alorreko ikerketan, hedapenean eta ezagutzan aurrera egitea, baita alor horretan planteatzen diren programen eta ekimenen ebaluazioan ere.

### 4.1 helburua. Adikzioen alorreko ezagutzaren garapena bultzatzea.

**4.1.1 Genero-ikuspegiarekin, hainbat adikzio-substantziaren kontsumoaren prebalentzia eta ereduak monitorizatzen jarraitzea, baita EAEko biztanlerian azaleratzen ari diren portaera-adikzioen egoera eta bestelako arazoak ere, Euskadi eta Drogak inkestaren bidez, Osasun Inkestaren bidez eta horiek osasunean duten ondorioei buruzko ikerketarako bestelako azterketa espezifikoaren batzuen bidez. Adikzioen arloko ikerketan eta ezagutzan aurrera egiten jarraitzeko helburuarekin, prebalentziaren, hainbat adikzio-substantziaren kontsumo-ereduen, EAEko biztanlerian azaleratzen ari diren jokabide-adikzioen egoeraren eta bestelako arazoaren monitorizazioa indartzea, genero-ikuspegiarekin, eta osasuna baldintzatzen duten gizarte-elementuak kontuan hartuta. Horretarako, maiz, gazteen eta helduen substantzia-kontsumoen eta jokabide-adikzioen funtsezko adierazleei buruzko datu adierazgarriak lortuko dira, ikerketarako azterketa espezifikoaren bidez, baita Euskadi eta Drogak inkestan, Osasun Inkestan eta beste prospekzio interesgarri batzuetan oinarrituta egindako azterketen bidez ere.**

- 2017an eta 2018an, **Adikzioen Euskal Behatokia** finkatu da, euskadi.eus webguneko **adikzioei buruzko web-orria** aldatu eta hobetu da eta **Drogomedia** dokumentazio-zentro gisa sendotu da.

- **Adikzioei buruzko Inkesta:**

- Adikzioei buruzko Inkesta diseinatzea, generoaren eta gizarte-klasearen ekitatearen ikuspegiarekin.
- Adikzioei buruzko Inkesta prentsaurreko batean aurkeztea; Osasuneko sailburuak eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak aurkeztu zuten, 2018ko irailaren 26an.

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/events/48568-rueda-prensa-del-consejero-salud-acerca-encuesta-sobre-adicciones-euskadi-2017>

- Adikzioei buruzko Inkestako datuak analizatzea, genero-ikuspegiarekin, eta drogen kontsumoan eta portaera-adikzioen prebalentzian dauden gizarte-desparekotasunak aztertzea.
- Adikzioei buruzko Inkestako eta Osasun Inkestako datuak batera analizatzeko proiektua, osasuna baldintzatzen duten gizarte-elementuen esparrutik.
- 2018ko Adikzioei buruzko Inkestan lortutako datuekin, urte horretan bertan bi txosten monografiko argitaratu dira, edari alkoholduen eta tabakoaren kontsumoari buruzkoak.

<http://www.euskadi.eus/informazioa/euskadi-eta-drogak/web01-a3gabia/eu/>

- 2018ko urrian, **genero-ikuspegia aintzat hartuta egindako tabako-kontsumoari buruzko azterketa** bat argitaratu da.



<http://www.euskadi.eus/informazioa/tabako-kontsumoa-genero-ikuspegia-aintzartuta/web01-a3tabaco/eu/>

- 2018ko abenduaren 5ean, Droga-menpekotasunen Deusto Institutuko zuzendariak eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak **“Drogak eta Eskola” inkestaren IX. edizioa**, Deustuko Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin egindakoa, **batera aurkeztu** zuten.
- 2017ko urrian, **EAEOn oinarritutako azterketa** bat argitaratu zen: **“Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen osasun egoera, gizarte-baldintzatzaileak eta osasun arloko desberdintasunak”**. Besteak beste, “Pantailen kontsumoa” eta “Tabako-kontsumo pasiboa etxebizitzan” analizatzen dira.

<https://www.euskadi.eus/documentacion/2017/estado-de-salud-determinantes-sociales-y-desigualdades-en-salud-de-la-poblacion-infantil-y-adolescente-en-la-comunidad-autonoma-del-pais-vasco-2017/web01-s2osa/es/>

#### **4.1.2 Lankidetzaren egituratua izatea adikzioen ikerketan eta ezagutzan lan egiten duten erakundeekin.**

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak lankidetzaren hitzarmen bana dauka SIIS-Euskal Autonomia Erkidegoko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroarekin eta Droga-menpekotasunen Deusto Institutuarekin. Bai 2017an bai 2018an, lehenengoak 100.000 €-ko urteko aurrekontua eduki zuen, eta bigarrenak, aldiz, 73.000 €-ko partida.
- Bestalde, UPV/EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuarekiko lankidetzaren ere badago. 2017an eta 2018an, lankidetzaren azterketa hauetan gauzatu zen:
  - 2017: “Komunikabideetan alkohol-kontsumoari buruzko informazioari tratamendu egokia ematea baldintzatzen duten elementuak ezagutzeko ikerketa”.
  - 2018: “Apirilaren 7ko 1/2016 legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa garatzeko eta aplikatzeko prestaketa-ikerketa”.

#### **4.1.3 Jokoaren, teknologia digitalen eta beste portaera-adikzio batzuen alor espezifiko ezagutza garatzea, fenomeno dimentsionatzeko, jokabideen kontzeptualizazioan eta sailkapenean sakontzeko eta baloraziorako irizpide komunak ezartzeko.**

- 2018an, urriaren 16ko 147/2018 **Dekretua, Jokoaren Euskal Behatokia sortu eta arautzeko dena**, onetsi zen; Behatokia Segurtasun Sailari atxikita dago. Ondorioz, adikzioetan aditua den pertsona bat Behatokian aritzen da. Arau horrek Behatokiari esleitzen dizkion funtzioen artean, honako hau nabarmendu daiteke: Adikzioen Euskal Behatokiarekin lankidetzan aritzea azterlana

eta ikerketa sustatzeko, jokoarekiko adikzioen eragina, prebalentzia eta arazoak zeintzuk diren jakiteko, osasunari eragiten dioten ezaugarri sozialen esparruan eta osasunaren arloan izan ohi diren ezberdintasunen baitan, eta, bereziki, emakumeek jokoarekiko izan ditzaketen adikzioen eragina aztertzeke ikerketa-lerroak sustatzea.

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/10/1805179a.pdf>

#### 4.1.4 Adikzioen eremuan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunei eta berezitasunei buruzko ezagutza sortzea, baita adikzioen prebentzioan eta arretan dauden genero-desparekotasunei buruzkoa ere.

- **Genero-ikuspegia aintzat hartuta egindako tabako-kontsumoari buruzko azterketa hedatzea**, zenbait formatu eta bidetan (4.1.1 ekintzan aipatu da): txosten osoa, erraz irakurtzeko laburpena eta infografia adikzioen web orriko GABIA Behatokian daude eskuragarri, posta elektronikoz bidali dira eta gizarte-sareetan hedatu dira.

- **Droga-mendekotasunen eremuko, eremu juridikoko eta eremu sozialeko profesionalen genero-indarkeriari eta alkohol-kontsumoari buruz duten perspektibari buruzko analisi bat** egin eta argitaratu da.

[http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_gabia/es\\_def/adjuntos/b-1-Consumo-alc-hol-violencia%20-genero.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_gabia/es_def/adjuntos/b-1-Consumo-alc-hol-violencia%20-genero.pdf)

#### 4.2 helburua. Adikzioen alorreko prestakuntza eta ezagutza garrantzitsuaren hedapena bultzatzea, alor horretan lan egiten duten pertsonen artean, batez ere.

##### 4.2.5 Adikzioen Behatokia indartzea, adikzioen alorrean lan egiten duten profesionalen artean ezagutza hedatzeko eta informazioa gordetzeko.

Adikzioen Behatokia arautzea, abian jartzea eta hari baliabide nahikoak esleitzea, 1/2016 Legean jasotako edukia eta baldintzak bete dituzan, hain zuzen zientzian liderra izateko funtzioa bete dezan, ezagutzaren hedapenari, datuen eta haien iturrien eguneraketari dagokionez, adikzioen eremuan diharduten profesionalentzat eta arreta-programetan parte hartzen duten gizarte-mugimenduentzat.

Gainera, Haurren eta Nerabeen Behatokiak eta Gazteen Euskal Behatokiak plan honen jarduketak aintzat hartu behar dituzte, eta analisi- eta informazio-elementuak ekarri, adikzio-substantzien kontsumoa eta eskaria eta adikzio-azturak murrizteko parte hartzen duten erakundeen jarduketa osatzeko.

<http://www.euskadi.eus/gabia-droga-mendekotasunen-euskal-behatokia/>

- Adikzioen Euskal Behatokiari dagokionez, zera azpimarra daiteke:
  - **GABIA Adikzioen Behatokiaren diseinu eta webgune berria.** Gaur egun, arlo hauek hartzen ditu barne: Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, baliabideen mapa, jardunbide egokiak, alerta-sistema eta Drogomedia.
  - GABIA Adikzioen Behatokiaren webgunean **baliabideen mapa** bat sartu da, Euskadin dauden adikzioen arloko egiturak (prebentzio-talde teknikoak, elkarteak eta Osasun Mentaleko Sarea) barne hartzen dituena. Mapa horretan, egiturak geografikoki aurki

daitezke eta horien harremanetarako informazioa eta egiten duten jarduerari buruzko informazioa lor daitezke.

- Hona hemen SIISek (Euskal Autonomia Erkidegoko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroa), Droga-menpekotasunen Deusto Institutuak eta Kriminologiaren Euskal Institutuak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenen eta kontratuaren esparruan egindako **ikerketen** kopurua:

	Ikerketa-kopurua
2017	6
2018	7

- Adikzio Zerbitzutik **gaiari buruzko datuak** ematen zaizkie **zenbait organismo eta erakunderi** (adibidez, Drogen Plan Nazionala, Gazteen Euskal Behatokia) eta beste plan instituzional batzuk (inklusioa, gazteak, familia...) eta haien jarraipenak egiteko laguntza ematen da. Datu horiek, alde batetik, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzan bertan kudeatutako baliabideetatik jasotzen dira (laguntzei buruzko agindua, prebentzio-programetarako kontratuak edo kalteak murrizteko baliabideak kudeatzen dituzten erakundeekin sinatutako hitzarmenak) eta, bestetik, Osakidetzak eta hirugarren sektoreko elkarrekin ematen duten informaziotik, adikzioen ondoriozko tratamenduari buruzko datuei dagokienez.
- 2017an eta 2018an, hitzarmen bana izan da SIIsrekin eta DDIrekin (4.2.7 ekintzan ere aipatu dira); adikzioen eremuan lan egiten duten profesionalen prestakuntza sustatzen duten alderdietan jartzen dute arreta berezia.

#### 4.2.6 Adikzioen alorrean informazio eta ezagutza garrantzitsua hedatzeko kanalak ezartzea:

- **Sare sozialetako komunikazio-estrategia.**
- **Laguntza argitalpenetan eta izaera orokorreko prestakuntza-jardueren antolakuntzan.**
- **Osasun Saileko Adikzioen Zerbitzuaren eta Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroaren (Drogomedia) webgunearen garapena eta hedapena, funts dokumentala handituz eta tresnak gehituz.**
- **Tabako-kerik gabeko Euskadi jardunaldiaren** bigarren edizioa, Osakidetzak bi urtez behin antolatzen baitu, 2017ko azaroaren 9an egin zen, Donostian, besteak beste helburu hauekin: tabakoarekin zerikusia duten esku-hartze ildo berriak hedatzea eta Kerik gabeko Erakunde Sanitarioen Euskal Sarearen jarduerak babestu eta ezagutaraztea. Jardunaldi hori Osakidetzako, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Saileko, toki-erakundeetako, sozietate zientifikoetako eta profesionalen elkargoetako profesionalei zuzendu zitzaien.
- **Hizlari gonbidatu** gisa parte hartzea jardunaldi eta kongresuetan. Adibidez, Etorkintzaren XXV. urteurreneko jardunaldia, Mungialdeko Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak antolatzen dituen osasunari buruzko jardunaldiak edo Zientzia eta Generoari buruzko Kongresu Iberoamerikarra.
- **Drogomedia dokumentazio-zentroak**, webgunearen bidez ematen duen informazioaz gain, profilak dauzka Facebook-en eta Twitter-en (@Drogomedia). Bai webgunea bai gizarte-sareetako profilak egunero eguneratzen dira eta Euskadin adikzioen eremuan gehien erabiltzen diren baliabideetako bat dira. Gainera, goizero, astelehenetik ostiralera, Drogomediaren aktualitate-buletina bidaltzen da; bertan, komunikabideetan agertu den adikzioei buruzko

informazio interesgarria biltzen da. Ostiralero, buletina osatzeko bestelako informazio interesgarria jasotzen da, adibidez, dokumentu berriak, legeria, aldizkarien aurkibideak, tresna profesionalak, ekitaldiak, etab. Harpidetza doakoa da.

<https://www.drogomedia.com/eu/>

- Adikzioekin zerikusia duten gai monografikoei buruzko **ebidentzia zientifikoa laburtzeko buletinak**: “Droga-kontsumoen joerak”. Drogomedia Monografikoak. 5. zk., 2017.
- EAEko eremuan egindako **azterketa zientifikoak** GABIA Adikzioen Behatokiaren bidez zabaltzen dira eta posta elektronikoz hedapen aktiboa egiten da, lanen esteka bidaliz. Twitter bidez ere bistaratzen dira. Drogomedian adikzioen arloko berri guztiak argitaratzen dira.

<http://www.euskadi.eus/informazioa/argitalpen-teknikoak/web01-a3gabia/eu/>

<http://drogomedia.com/eu/documentacion/novedades/>

#### 4.2.7 Prestakuntza-ekintzak garatzea eta dibulgazio-materialak sortzea, adikzioen alorrean lan egiten duten profesionalentzat, haien beharren azterketan oinarrituta eta ekitate-ikuspegia barne hartuta.

- **DDIk** Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin **urtero antolatutako mintegiak**. 2018: portaera-adikzioei buruzko mintegia.
- **Droga-menpekotasunen Deusto Institutuak** (DDI) Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin **urtero antolatutako sinposioa**. 2017ko edizioa azaroaren 6an izan zen eta haren gaia “Prebentzioa zelan birpentsatu izan zen”. 2018ko edizioa, aldiz, abenduaren 10ean izan zen, eta bertan “Garapen komunitarioa, osasuna eta bizi-kalitatea” landu ziren.
- Droga-menpekotasunen Deusto Institutuarekin (DDI) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroarekin (SIIS) urtero sinatutako lankidetzak-hitzarmenen esparruan egiten diren eta droga-mendekotasunen arloan lan egiten duten profesionalei zuzentzen zaizkien **ikastaroak eta tailerrak**:

2017	SIIS	Tailerra	Alkoholaren prebentzioan jokabide egokiak identifikatzea
	DDI	Jardunaldia	Drogen kontsumoa prostituzio-testuinguruetan
		Jardunaldia	Genero-ikuspegia droga-mendekotasunetan txertatzea
		Jardunaldia	Gizarte-programen emaitzen ebaluazioa: ikerketa-metodologia eta eraginkortasunaren balorazioa
2018	DDI	Jardunaldia	Berrerortzeen prebentzioa emakumeekin, genero-ikuspegitik
		Jardunaldia	Genero-ikuspegia drogen kontsumoan eta beste adikzio batzuetan
		Jardunaldia	Gizarte-programen eta -proiektuen ebaluazio-ikerketa, teknika kuantitatibo eta kualitatiboekin
	Jardunaldia	Lan-eremuan drogen kontsumoa prebenitzeari buruzko sentsibilizazioa	

- Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialaren (COEGI) eta Errehabilitazioan dauden Alkoholikoen eta Droga-mendekoen Elkartearen (AERGI) arteko **lankidetzak-akordioa**, baterako jarduerak egiteko.



- **AERGik** (Errehabilitazioan dauden Alkoholikoen eta Droga-mendekoen Elkarte) Erizaintza Elkargoan adikzio-prozesuei buruz **emandako ikastaroa**, Gipuzkoako 5.000 erizain baino gehiagori sentsibilizazioa eta prestakuntza emateko.

**4.2.8 Portaera-adikzioei buruzko prestakuntza-programa berezia garatzea, adikzioen alorrean lan egiten duten profesionaleri, lehen mailako arretako osasun-zerbitzuei, gizarte-zerbitzuei eta hirugarren sektoreari zuzenduta eta gizonen eta emakumeen berezitasunak kontuan hartuta.**

- **Portaera-adikzioei buruzko tailerra**, profesional eta langile teknikoei zuzendua, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak Bilbon 2018ko apirilaren 13an antolatua. 48 pertsonak hartu zuten parte. Lehenago aipatu da, 1.2.9 ekintzan.

### **4.3 helburua. Adikzioen alorreko programa publikoen ebaluazio-sistematika garatzea eta ezartzea.**

**4.3.9 Gauzatutako edo lagundutako programen eta ekimenen esparru metodologikoa eta jarraipen- eta ebaluazio-jarraibideak garatzea, genero-ikuspegia kontuan izanda.**

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen diru-laguntzen bidez finantzatutako ekimenei eta programei buruzko **informazioa modu sistematikoan eta genero-ikuspegiarekin ustiatzeko aplikazio** bat garatzea 2018an.

**4.3.9 bis Planaren ebaluazio egokia egiteko, adierazle homogeneousak eta datu eguneratuak barne hartzea eta horietan oinarrituta sailkatzea planaren helburuak eta xede horretarako planteatzen diren ekintzak. VII. Adikzio Planaren ebaluazioa Administrazioetik kanpo dauden espezialisten eta organo independenteen esku utziko da.**

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak dauzkan datuak zenbait azterketa oinarri hartuta eguneratzen dira: 2017ko Adikzioei buruzko Inkesta, 2017ko EAEOI, 2018ko Drogak eta Eskola eta EDADES eta ESTUDES inkestak; azken bi horiek Drogen Plan Nazionalak (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa) egiten ditu.

#### **4.4 helburua. Alor horretan lan azpimarragarria egin duten ekimenen aintzatespena bultzatzea.**

**4.4.10 Pertsona edo erakunde jakin batzuek adikzioen prebentzioan, eskaintzaren murrizketan, arriskuen murrizketan, laguntzan, gizarteratzean, prestakuntzan edo ikerketan egin dituzten lana edo ibilbidea guztien aurrean aintzatesteko ekintzak eta ekimenak bultzatzea. Horretarako eratutako epaimahaiek ordezkariak orekatua eduki beharko dute, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, jasotako irizpideak bete daitezzen. Lege horren ondorioetarako, ordezkariak orekatua izango da kide anitzeko administrazio-organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak baldin badu.**

- **Adikzioen arloan jokabide egokiak identifikatzeari buruzko tailerra:** 2017ko abenduaren 1ean, Osasun Saileko Adikzio Zerbitzuak antolatutako tailer bat egin zen Bilbon, autonomia-mailan jokabide egokiaren balorazio-eskema bat eta jokabide horiek definitzeko irizpideak modu partekatuan ezartzeko, alkoholean eta prebentzioan arreta berezia jarriz. Hizlaria Joan R. Villabí izan zen, Osasun Publikoaren Bartzelonako Agentziakoa eta Epidemiologiaren Espainiako Sozietateko alkoholari buruzko lantaldearen koordinatzailea.

Parte-hartzaileak: udaletako, erakundeetako, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako eta Osakidetzako 24 pertsona.

- **Adikzioei lotutako jokabide egokiak identifikatzeko eta hedatzeko sistema garatzea:** 2018. urtean, apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, garatzeko dekretua prestatzeko aurretiko azterketa- eta analisi-fasea burutu da; dekretu horren xedea izango da adikzioen arloan jardunbide egokietarako eta ibilbide profesionaletarako aintzatespenak sortzea eta arautzea.

## 5. ARDATZA: Lidergoa eta koordinazioa

**HELBURU OROKORRA:** Adikzioen alorrean inplikatur dauden eragileen sistemaren funtzionamendu koordinatuan, kohesionatuan, eraginkorrean eta efizientean aurrera egiten jarraitzea.

### 5.1 helburua. Adikzioei buruzko arautegi berria eta VII. Plana hedatzea, aplikatzea eta garatzea.

#### 5.1.1 Araudiaren eta planaren helburuak eta ildo orokorrak inplikaturako eragile guztiei jakinaraztea, komunikatzea eta haiekin konpartitzea.

- VII. Adikzio Plana Adikzioen Institutuzio arteko Koordinazio Batzordeari eta Adikzioen Euskal Kontseiluari aurkeztu zitzaizkien, 2017ko ekainaren 1ean eta ekainaren 14an, hurrenez hurren.
- Eusko Legebiltzarrean 2017ko urriaren 27an aurkeztu zen.

#### 5.1.2. Administrazio-maila guztietan arautegiaren aplikazioaren alorrean eskumenak dituzten ordezkariak parte hartuko duten lan-mekanismoak ezartzea, arautegiaren ulermenean sakontzeko eta ordenantzen garapenean jarraibide komunak definitzeko helburuz.

- **Adikzioen Institutuzio arteko Batzordeak** bi bilera izan zituen 2017an, 2017ko apirilaren 5ean eta ekainaren 1ean.
- Bestalde, **Adikzioen Euskal Kontseilua** 2017ko ekainaren 14an bildu zen.
- 2018ko azaroaren 27an eta 28an, Donostian **toki-erakundeekin eta udaltzaingoekin lan egiteko jardunaldi** bat egin zen, legezko drogen arloko eskaintzaren murrizketarekin, ikuskaritzarekin eta zehapenarekin zerikusia duten zenbait konturi heltzeko. 2.1.1 ekintzan aipatu da.
- **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia** 2017ko ekainaren 30ean eta 2018ko ekainaren 28an bildu zen.
- **Jokoaren Euskal Kontseilua** 2017ko ekainaren 30ean, 2018ko ekainaren 28an eta 2018ko azaroaren 15ean bildu zen.

#### 5.1.3 Prebentziora zuzendutako udal-planak garatzea, bultzatzea eta babestea, plan honekin bat etorriz eta tokiko egoerara egokitzuz, eta orain indarrean daudenak indartzea, beharrezko koordinazio-maila bermatuz eta komunitatearen partaidetza eta sektoreen arteko lana sustatuz.

Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduak tokiko planak garatzeko eta eguneratzeko jarduketara ildo bat jasotzen du.

2017an eta 2018an, bost toki-erakunde eskatu dute beren tokiko planak diseinatzeko laguntza: Ermuak, Arrasatek, Azkoitiak, Hondarribiak eta Eibarrek.

### 5.1.3 bis Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen erregelamenduzko garapena burutzea.

- 2018an:
  - Indarrean sartu zen **25/2018 Dekretua, otsailaren 20koa**, apirilaren 7ko 1/2016 Legean bildutako **erakunde-egitura garatzen duena**. Dekretu horrek 1/2016 Legean xedatutako koordinazio-, partaidetza- eta zuzendaritza-tresnak eta -organoak arautzen ditu.  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/03/1801139e.pdf>
  - Apirilaren 7ko 1/2016 Legea garatzeko **beste lau dekretu idazteko** aurretiko **azterketa-eta analisi**-faseak egin dira:
    - Edari alkoholduen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen arloko seinaleei buruzko dekretua.
    - Adikzioen arloan jardunbide egokietarako eta ibilbide profesionaletarako aintzatespenak sortzeko eta arautzeko dekretua.
    - Legearen 93. artikuluan xedatutako ordezkotako neurriak arautzeko dekretua.
    - Kalamu-kontsumitzaileen erakundeak arautzeko dekretua.

**5.2 helburua.** Adikzioen alorrean inplikaturik dauden eragile publikoen eta pribatuen arteko lidergoa, koordinazioa eta elkar-laguntza indartzea, sektoreen arteko lana eta sinergien aprobetxamendua sustatuz.

**5.2.4 Adikzioen alorrean komunitate-mailako prebentzio- eta sustapen-talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, komunitate-mailako prebentzio-programak garatzeko eta arriskuen eta kalteen murrizketarako proiektuak egiteko eta jokabide osasungarriak sustatzeko diru-laguntzei buruzko aginduari eustea eta hori hobetzea.**

- Osasun Sailak adikzioen arloan 2017an eta 2018an eman dituen **laguntzei buruzko aginduak**.

Osasun Sailak adikzioen arloan emandako laguntzei buruzko aginduak

	EHAAn argitaratu diren data	Zenbatekoa
2017	abuztuak 28	2.618.400
2018	ekainak 29	2.618.400

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/08/1704215e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803388e.pdf>

- Adikzioen arloko laguntzak **Osasun Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan** sartuta daude. Plan hori urtarrilaren 23an onetsi zen 2017an, eta martxoaren 27an 2018an.

**5.2.4 bis Adikzioen prebentzioan eta arretan inplikatur dauden eragile publiko eta pribatu guztiek hirugarren sektore sozialaren garrantzia aitortzea, sektoreen arteko koordinazioa hobetzea eta sare-lana areagotzea, behar nagusietara eta errealitate berrietara egokituz.**

**Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalerriek, mankomunitateek eta kuadrillek sektore arteko ekintza eta adikzioen eremuan inplikatur dauden eragile guztien arteko koordinazioa bultzatzea eta sustatzea, baita sozietate zibil guztiaren partaidetza eta inplikazio aktiboa sustatzea ere.**

- 2017ko apirilaren 5ean, **Adikzioen Institutio arteko Batzordea eratu zen**; Eusko Jaurlaritzak, udalek eta foru-aldundiek osatzen dute.
- 2017ko ekainaren 1ean, Batzordea bildu egin zen VII. Adikzio Planaren eta 1/2016 Legean xedatutako erakunde-egiturari buruzko dekretu-zirriborroaren berri emateko.
- 2017ko ekainaren 14an, **Adikzioen Euskal Kontseilua** eratu zen. Bileran, VII. Adikzio Planari buruzko eta arestian aipatutako dekretu-proiektuari buruzko txostena eman zuen.
- 2018ko urriaren 23an, Euskal Gobernu Kontseiluak —urtero bezala— baimena eman zuen **Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin** (Drogen Plan Nazionalerako Gobernuaren ordezkari) **1999ko ekainaren 2an sinatutako Lankidetzako Protokolo Orokorren** berariazko hitzarmen bat sinatzeko 2018rako, droga-mendekotasunen arloan. 2017an, hitzarmen hori urriaren 24an baimendu zen.

**5.2.5 Arlo horretan erakunde pribatuek egiten dituzten jarduerak bultzatzea eta, Adikzioen Institutio arteko Koordinazio Batzordearen, Adikzioen Euskal Kontseiluaren eta “ad hoc” sortutako beste foro operatiboan edo teknikoan bitartez, eragileen eta erakundeen arteko lankidetzako bultzatzea, beti ere gizon eta emakumeen partaidetza orekatua izanda, eta genero-ikuspegia eta talde eta egoeren aniztasuna aintzat hartuta.**

Helburu horrekin zenbait bilera egin dira (5.1.2 ekintzan jaso dira).

**5.2.6 Drogen Plan Nazionalarekin koordinazioa mantentzea, baita estatuko edo Europako beste egitura batzuekin ere.**

- Eusko Jaurlaritzak **Autonomia-erkidegoen arteko Konferentziaren, Sektoreko Konferentziaren eta Adikzioen Espainiako Kontseiluaren bilera** guztietan parte hartu du. 2017. urtearen bigarren erdian horrelako 3 bilera egon ziren. 2018an beste 3 bilera egon ziren.

**5.2.6 bis Gazteen Euskal Kontseiluarekin elkarlanean, gazteek adikzioen gaia lantzeko parte hartzea sustatzea xede duten dinamikak eta prozesuak diseinatzea eta burutzea, berdintasun-politiketan garatzen ari den programa, Bildur Barik, erreferentziatzen hartuz.**

- Urtero Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean aritzen gara Plan Joven-Gazte Planean, eta bertan adierazitako politika guztiak hartzen dira barne.

**5.2.6 ter VII. Adikzio Planaren garapenean unibertsaltasun-, solidaritate-, ekitate- eta jasangarritasun-printzipioak errespetatzen direla bermatzen jarraitzea, horren ekintzak genero-ikuspegira eta adin-talde bakoitzaren inguruabar zehatzetara egokitu daitezten.**

- Adikzioen Zerbitzuak ekarpena egiten du adikzioen prebentzioaren, detekzio goiztiarraren eta arretaren arloko ekimenek **generoari, adinari, gizarte-klaseari eta hiriko eta landako eremuei dagokienez ekitate-ikuspegia** barne har dezaten.
- 2017an eta 2018an, **genero-ikuspegia aintzat hartuta egindako tabako-kontsumoari** buruzko azterketa zuzendu eta finantzatu da. Horri esker, tabakismoa tratatzeko gizonentzat eta emakumeentzat bereizitako esku-hartze bat prestatu ahal izan da, erretzeko eta erretzeari uzteko dituzten motibazioen arabera. Ikerketa-taldean Osakidetzako medikuntza eta erizaintzako profesionalek, Osasun Publikoko profesionalek eta udaletako adikzioen prebentzioaren arlokoek hartu dute parte.
- Gainera, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak bultzatzen dituen azterketa eta lanetan, bai beraren partaidetzaz bultzatzen direnetan bai kanpoan egiten direnetan, aipatutako printzipioak txertatzen dira, honako hauek kontuan hartzeko: auzoen maila sozioekonomikoa, gizonen eta emakumeen partaidetza beraien beharren arabera, adin-taldeak beraien ezaugarriekin eta bai hirien bai herrien ordezkaritza.



